

AIARALDEA *hemen*



ETXEGABEAK:
Laudio, Amurrio eta Urduñan
zenbat etxegabe dauden
ikertu dute 2 or.

ERREPORTAJEA:
Indarkeria matxistaren
eguneroko horma
ikusezinak 8 or.



**“Erabat
asetzen
zaitu sei
milako
baten
tontorrera
igotzeak”**

AMURRIO 3
Enplegua erregulatzeko
espedientea luzatu nahi
du Tubos Reunidos
2020ko otsailera arte luzatu
nahi du zuzendaritzak egun
enpresan indarrean dagoen
Enplegua erregulatzeko
espedientea

LAUDIO 6
Antzoki proiektuaren
lehiaketa eten dute,
helegite bategatik
Euskal Herriko Arkitektoen
Elkargo Ofizialak aurkeztu
du helegitea, lehiaketaren
oinarrietako batzuk lehia
mugatu dezaketela iritzita

AIARALDEA 7
laz baino hamaika aldiz
gehiago irabazi du
Tubececxek
Irabazien hazkunde horrek
ez die hobekuntzarik ekarri
Tubacex Taylorreko langileei.
Egoerak lantegian berdin
jarraitzen duela diote

KIROLA 20
Esti Ortizek eta Aaron
Garmendiak lehen postua
eskuratu dute Ipar Ligan
Arratiako Raida irabazi
zuten Laudio eta Tertangako
kirolariek. Ortizek elkarriketa
egin diogu garaipen horren
inguruan

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

eman izena

www.euskaraldia.eus

GABONEK BETETZEN DUTE

GABONETAKO
LOTERIA
**PRESTATU SARI
POTOLORAKO**

EROSI ORAIN!

Zumalakarregi 3, Laudio • 94 672 04 93 • www.lacasaderesa.com

Erreportajea

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 26 herritan egin du Eusko Jaurlaritzak bizitegi bazterketa larria duten pertsonen gaineko ikerketa. Horien artean daude Urduña, Amurrio eta Laudio.

Guztira 2 lagun kontabilizatu dituzte bizitoki gabe eskualdean. 30 aiaraldear aritu dira boluntario lanetan. Etxegabeei laguntzeko baliabideak daude eskualdean, baina ez dago aterperik.

Zenbat etxegabe daude Aiaraldean?



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Zenbat pertsona ari dira kalean edo behin-behineko babeslekue-tan bizitzen? Hori jakiteko atera ziren kalera urriaren 18 eta 19an EAEko 26 udalerritan. 2019an argitaratuko dituzte azterlanaren ondorioak.

Eskualdean 2 pertsona topatu dituzte bizitoki gabe, Amurrión. Gizonezkoak dira biak, baita EAEko etxegabeen %89.65 ere. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan guztira 435 lagun antzeman dituzte bizitoki barik, 390 gizon eta 26 emakume (%5.97). Lotan zeudenez sexua ezin bereizteagatik 19 lagun geratu dira zehaztapen horretatik kanpo. Azpimarratzekoa da, hirietan lokalizatu direla etxegabe gehien, %78.4: Bilbon 211 (%48.5), Donostian 106 (%24.4) eta Gasteizen 24 (%5.5). Gainontzeko herriekin alderatuta, nabarmentzekoa da Amurrio dela etxegabe kopuruan 8. herria, Bilbo, Oiartzun, Donosti, Bergara, Barakaldo, Irun eta Tolosaren atzetik.

Baina nola egin dira behaketak? Boluntarioz osaturiko taldeen bidez. Aiaraldean, esaterako 29 lagunek hartu dute parte: Laudio 14k, Amurrión 13k eta Urduñan 9k. Sexuari erreparatuta, emakumeak izan dira boluntario gehienak, Urduñan salbu. Datuak eskualdeko laginera ekarrita, 29tik 17 izan dira emakumeak, %58.62. EAEan, aldiz, 919 herritar atera dira kaleko bizitza neurtzera: 305 gizon eta 614 emakume (%66.81). Galdetegiarri dagokienez, 31 elementu aztertutakoak, ezaugarri soziodemografikoak identifikatze alderara. 22:00etatik 02:00etara ibili dira horretarako kalez kale.

Hala, pertsona horien egoera administratiboa, osasunarena, eta gizarte harremanei buruzko informazioa bildu dute. Dena den, fitxan jasotako datuak soilik aurkeztu dituzte momentuz, galdetegia esna egonik elkarriketa egin nahi zuten etxegabeei soilik pasa baitzieten.

"Gaueko errolda zenbaketa" izendatu dute esperientzia. "Zenbat pertsona dauden egoera horietan eta zein ezaugarri dituzten



Eusko Jaurlaritzak eginiko zenbaketan bi etxegabe kontabilizatu zituzten eskualdean. [Aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

ezagutzeko oso metodologia baliagarria da", adierazi dute ikerketa txostenean. Laugarren aldiz gauzatu dute behaketa Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Aiaraldean, baina, bigarrenburutu da. Hirietan soilik ikertu zuten 2012an, 2014an 10 udalerrigehiago batu ziren, eta 2016an 24. Hala, 2018ko edizioan 26 herritan aritu dira herritarren egoera aztertzen: Amurrión, Urduñan, Laudio, Gasteizen, Barakaldon, Bilbon, Erandion, Galdakaon, Getxon, Gueñesen, Leioan, Portugaleten, Santurtzin, Sestaon, Zallan, Bergaran, Donostian, Eibarren, Errenterian, Hernanin, Irunen, Legazpin, Oiartzunen, Pasaian, Arrasaten eta Tolosan. Guztiak barne hartuta, EAEko biztanle guztien %66 ikertu dute, beraz.

Igoera nabarmena EAEan

2012tik 2018ra egin dira behaketak EAEan. Laudio eta Urduñan birritan gauzatu dute zenbaketa, 2016an eta aurren; eta bietan

ez da etxegaberik topatu. Amurrión aurrenekoz osatu dute ikuskaketa, eta, beraz, bilakaera ezin da aztertu.

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan, baina 161 hazi da kopurua azken bi urteetan: 2012an 243 lagun zeuden bizitoki gabe, 2014an 323, 2016an 274 eta 2018an 435.

Eskualdeko baliabideak

Gizarte ekintzetarako zer nolako politikak darabiltzate eskualdeko udalek? Isabel Boveda zinegotziaren hitzetan, Laudioko zerbitzu sozialak teiltatu gabeko pertsonarik ez egoteko bideratuta daude: "Janari, farmazia eta mugikortasun baliabideak errazteko arreta programa dugu martxan, eta Laudio erroldatuta daudenentzat sozialki normalizatzeko zenbait baliabide daude: pisuak kasu, etxegabetze arriskuan daudenentzat bezala". Boveda erantsi duenez, larrialdietarako etxebizitzak dituzte indarkeria matxista jasan dute emakume erasotuentzat edota errefuxiatuen-

Etxegabeen igoera nabarmena egon da EAEan. Azken sei urteetan ia bikoiztu egin da kopurua. Aiaraldean, baina, ez dago bilakaera aztertzeke datu nahikorik

tzat, besteak beste.

Amurrioko Udalak, aldiz, adierazi du erraztasunak ematen dituela "inork kalean lo egin ez dezan".

Joselu Grande Urduñako ongizate zinegotziak tokiko instituzioaren politika eta baliabideak aipatu ditu: "Urduñako Biltegian elikagaiak,

arropa eta etxeetarako materialak daude eskura baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsona eta familientzat". Horrez gain, gizarte hezitzaileek esku hartze komunitarioak egiten dituzte, "gatazken kudeaketan, ohitura osasungarrien sustapenean eta Urduñan jendarteratzen laguntzeko".

Larrialdi Zerbitzuetarako eskaintzaz gain, bazterketa sozial berezia duten 18 eta 23 urteko gazteentzat ere aparteko laguntzak dituzte. "Bono soziala ere badugu, aukera ekonomiko urridunek argindarraren fakturan deskontua jaso dezaten", kontatu du. Granderen iritziz, Urduñan ez dago etxegaberik baliabide horiekin muturreko egoeran daudenak artatu dituztelako: "Kasurik balego, eta Urduñako Udal baliabideekin ezingo balitzaio erantzun, Bilboko Gizarte Larrialdi Zerbitzura bideratuko litzateke herritarra, Urduñan elikagaiak eta arropa emango litzaizkioke, baita Bilborako tren garraioa ordaindu ere".

Amurrio

Enplegu-erregulazioko espedientea 2020ra arte luzatu nahi du Tubos Reunidosek



Tubos Reunidoseko akziodunak langileen aurretik igarotzen. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Urriaren 25ean eskatu zien Tubos Reunidoseko zuzendaritzak langile ordezkariari negoziazio mahairako kideak hautatzeko. Jadanik hasi dira bi aldeen arteko elkarrizketak eta enpresako agintariak adierazi dute enplegu-erregulazioko espedientea ezarri nahi dutela 2018ko azarotik 2020ko otsailera arte. Antza, beharginek erdira murriztu beharko lukete lanaldia, edo %56ra, gehienez. Hala eta guztiz ere, negoziazioak ez dira amaitu.

Lantegiak jarduera elikatu-ko lukeen eskariak jasoko balitu, lanaldia handitzeko parada izango luke enpresak eta, ondorioz, beharginak ez lirakeke etxean geratu behar euren lan-gabezia kontsumitzen.

Akzioen balioaren galera

Berez, Tubos Reunidos taldean erabakiak eta neurriak azkartu dira Guillermo Ulaciak zuzendaritza utzi ostean.

Ulaciaren agurraren eraginez akzioen %35eko balioaren galera jazo zen hurrengo asteetan, eta horri gehitu behar zaio zorra ordaintzeko gaitasun eza aitoritu duela zuzendaritzak. Horrez gain, Trumpen zergeta lantzan jarri dute negozio ereduak.

Edonola ere, langileek gogoratu dute euren egokituko zaila ordaintzea zuzendaritzak hartutako erabaki txarrak: “2007an adostu zuten Condesa enpresarekin fusioa, eta nahiz eta 170 milioi euroko mailegua eskatu, azkenean ez zuten gauzatu. Hori bai, maileguaren dirua akziodunen artean banatu zuten”.

Udalak bi langabetu kontratatuko ditu igeltsero lanak egiteko

“Refor: ekintzailatza dibertsifikaturako espazioak sortuz, II. Fasea” izeneko enplegu programa jarriko du abian Amurrioko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Bi langabetu kontratatuko ditu tokiko erakundeak 6 hilabetez, jardunaldi osoan. Interesdunek Lanbiden eman beharko dute izena azaroaren 12a baino lehen.

Izena emateko beharrezkoa izango da ondorengo baldintzak betetzea: herrian erroldatua egotea, Lanbiden enplegu-eskatzaila gisa apuntatzea eta gutxienez urtebeteko esperientzia profesionala izatea. Lehen Mailako Ofizial kategorian igeltserotzan edo eraikuntzan.

Ehunka herritarrek egin diote ongietorria Alfredo Remirezi



Azaroaren 3an ateratu zen Alfredo Remirez Marañon Zaballako espetxetik, urtebete presoeman ostean dipertsioaren aurkako ekintza bat egiteagatik eta twitterren garatutako jardunagatik. Ehunka lagunek egin zioten harrera Amurrian.

Puntazo Egunaren X. edizioa, apirilaren 6an



Iragan apirilean egin zen Puntazo Egunaren azken edizioa. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Amurrioko jai koadrilak hasi dira datorren Puntazo Eguna antolatzen. Eman dute lehenengo pausoa: inkesta irekia plazaratu dute, jendearen iritzia eta ekarpenak jasotzeko. “Galdetegiak iragan edizioari buruzko iritzia batzea du xede, jendearen ikuspuntua jakiteko eta aurtengo edizioarako hobetu ahal ditugun ekitaldiak lantzeko”, azaldu dute jai

koadriletako kideek, “guretzat interesgarria zein garrantzitsua da jakitea jendeak zer nolako ekitaldiak dituen gogoko eta zeintzuk aldatuko lituzkeen, azken finean jendearen parte hartzeari esker ospatzen da egun hori”.

Erantzun asko batu dituzte dagoeneko, baina gehiago jaso nahi dituzte. Datorren urtean egingo dute jaiaren X. edizioa, apirilaren 6an. “Gogoekin gabilta laster informazio gehiago aurreratzeko”.

Baranbio

Azaroaren 29an egingo dute Garrastatxuko Txosnaren enkatea

Garrastatxuko Txosnaren enkatea egingo du Baranbioko Administrazio Batzarrak datorren azaroaren 29an. 100 euroko aiazango da irteera prezioa. Kontratua urte bakarrerako

izango da, baina aukera egongo da bost urtera arte luzatzeko.

Enkantean parte hartzeko mezu bat bidali behar da j.a.baranbio@gmail.com helbidera. “Baldintzak interesatuei zehaztuko dizkiegu”.



1945. urtetik Laudion zurekin

Karmen Kalea 13, behe
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIK



Ezagutu gure
Gabonetako
saskiak



ARANTZAR POLIGONOA, 2
01400 LAUDIO (ARABA)

WWW.BEBIDASERRANO.COM
TEL. 94 - 672 97 90
INFO@BEBIDASERRANO.COM

herriz herri

Orozko

Ibarrako zentroan gaueko txandan 2 langile daudela 80 lagunentzat salatu dute

Testua
Txabi Alvarado Bñares

Oharra plazaratu dute Ibarra-ko Jesus Maria aniztasun funtzionala duten pertsonen zaintzarako zentroko langileen ordezkariak (LAB, CCOO eta ESK sindikatuak) azken hilabeteetan jazotako murrizketak salatzeke. Langileen ordezkariak azaldu dutenez, Madres Mercedarias entitate erlijiosoak kudeatu du zentroa uztaile arte. Orduan Grupo Norte zerbitzu enpresako fundazioak hartu zuen kudeaketaren ardura, subrogazio bidez.

Gauetan 2 langile

Subrogazioaren ondorioz hainbat murrizketa pairatu dituzte langileak, sindikatuen ustez. Alde batetik, behargin kopuruan murrizketak egon dira. "Ez dira berritu zerbitzua aurrera ateratzeko beharrezkoak eta estrukturalak diren aldi baterako lanpostuak". Gaueko txanda-ko langile bat kaleratu eta kale ordaina diru publikoz ordaindu diotela gaineratu dute sindikatuak.

Horrez gain, "atentzio ratioa"

txikitu dute: "5 langile daude txanda bakoitzean 80 erabiltzaileentzako, eta gaueko txandan 2 langile baino ez".

Lan eskubideetan ere murrizketak egon dira, beharginen ordezkariak nabarmendu dutenez. Soldata eskala bikoitza ezarri dela kritikatu dute. "Langile berriei ez zaie enpresa paktua aplikatzen eta jardunaldi osoa 836 euroko soldatarekin ordaintzen da". Gainera, kontratuan zehaztuak dauden asteburu eta lanegun gehiagotan lan egitera derrigortzen dituzte.

Horrek guztiak "kalitate zerbitzua eskaintzea" zailtzen duela nabarmendu dute sindikatuak. "Erabilera merkantilista honen kaltetu nagusiak, langileekin batera, erabiltzaileak dira".

Era berean, sindikatuak gogoratu dute zentroak jasotzen duen diru kopuru handi bat Bizkaiko Foru Aldundiarekin gauzatutako hitzarmen batetik datorrela. "Beraz, guztion patriketatik datorren diru publikoaz hitz egiten ari gara".

Gauzak hala, "lan baldintzak errespetatu eta mantentzea" eta "langile murrizketekin amaitzea" eskatu dute.

Argazki zaharren bila, 2019ko egutegirako



Argazkietan Orozkoko bizilagunak agertu beharko dira. Indalecio Ojanguren

2019ko egutegia osatzeko argazki zaharren bila dabil Orozko-ko Udala. Datorren urteko alean herriko ogibide zaharrak izango dira protagonista. Herritarren laguntza eskatu dute argazkiak bilatzeko. Interesa izanez gero, oroz-

koarren argazki zaharrak dituen pertsona orok izango du horretarako aukera azaroaren 15a bitarte. Argazkiak paperezko formatu fisikoan entregatu beharko dira Orozkoko Udaletxean edo Industria Informazio Bulegoan.

Artziniega

Autobus geltokia handitzeko obrak egiten dabilta

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Autobus zerbitzua hobetzeko obrak egiten ari dira Artziniegan. Zehazki, geltokia da konponduko dutena. Izan ere, orain arte autobus bakarrarentzat zegoen tokia. Obrak bukatzean, berri, mota horretako bi ibilgailu sartuko dira. "Artziniegara datozen bestelako autobusentzat ere egongo da tokia horrela", adierazi du Iñigo Gomez alkateak.

Lanek hiru asteko iraupena

izango dute. Egitasmoa gauzatzeko Arabako Foru Aldundia- ren diru-laguntza jaso du tokiko erakundeak.

Espazioa egokitu bitartean, egungo geltokitik 20 metrora kokatuko dute autobusen garelakua. Bilbo eta Gasteizera doazen autobusei eragiten die behin-behineko moldaketak.

Oharra: Eduki hau bazkideei esker plazaratu da, Artziniega-ko Udalak tokiko euskarazko hedabide bakarra ekonomikoki ez babestea erabaki baitu.

Otsati Uhinak irrati librea sortu dute herrian

Artziniegak badu proiektu komunikatibo berria: Otsati Uhinak irrati librea. Otsati Kultur Elkarteko kideek sortu dute tresna. Set txiki bat atondu dute elkartearen egoitzan, irratsaioak grabatzeko, eta internet bidez plazaratuko dituzte gero, YouTubeko kanal batean.

Momentuz bi programa grabatuko dituzte, hamabostean behin. Gaurkotasuna izango du ardatz batak, eta historia, aldiz, bestek.

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA INDARTZEKO EGIN ZAITEZ BAZKIDE

AIARALDEA EKINTZEN

FAKTORIA

izan



babestutako edukia

Aske bizi nahi dugu. Emakumeok argi dugu. Eta zuk? kanpaina aurkeztu du Arabako Foru Aldundiak, azaroaren 25ari begira. Ez da erakunde horrek indarkeria matxistaren aurka egingo duen jarduera bakarra izango, Laia eskola ere abian baitago. Eskualdean makina bat hitzaldi eta tailer egingo dira egitasmo horren barruan.

Arabako Foru Aldundiak gizarte osoari eskatu dio erantzukizunez jokatzeari indarkeria matxista deuseztatzeko

Azaroaren 25ean izango da Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalarekin batera, sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpaina bat jarriko du abian lurralde osoan. Baita askotariko programazioa ere, herritar guztientzako, oro har, eta bereziki gazteentzako. Hitz joko bat erabiliz, "Aske bizi (raun) nahi dugu - Queremos (sobre) vivir libres", gizarte osoari eskatu nahi diote erantzukizunez jokatzeko, emakumeek indarkeria matxistatik gabe bizitzea bermatzeko.

Aldundiak txartelen bidez zabalduko du erakunde kanpaina, lurraldeko leku guztietara iristen dela bermatzeko, bereziki landa eremura eta Arabako kuadrilletara. Araba Buseko autobusetan ere jarriko dituzte txartelak.

Horrez gain, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zenbait informazio saio antolatu ditu emakumeek indarkeria egotzen dituzten eskubideei buruz, eta baita erabil ditzaketen baliabide juridikoez ere. Horietan, Susana Cambrana arituko da, abokatua eta Hegoak foru zerbitzuko arreta soziojuridiko espezializatuko arduraduna. Azaroaren 15ean eta 22an eta abenduaren 13an izango dira, Laudion, Amurrioren eta Araian.

"Libre bizi nahi dugu. Emakumeok argi dugu. Eta zuk?" lema loturik dago Emakunde antolatutako Beldur Barik erakundearteko programarekin. Eskualdean lehiaketa propioa antolatu dute. Gazteentzako dinamika horren helburua da talde eztabaida eta hausnarketa sustatzea, hainbat baliabide erabiliz. Urduñan izango da Aiaraldeko txapelketaren sari banaketa, hilaren 23an.



Hainbat elkarretaratze egingo dira azaroaren 25ean eskualdean emakumeenganako indarkeria arbuiatzeko. Aiaraldea.eus

Laia Eskola abian

Hainbat ekimen sustatu ditu Arabako Foru Aldundiak Aiaraldean azken urteetan indarkeria matxistaren aurka borrokatu eta berdintasuna sustatzeko. Laia Eskola da horietako bat. Egitarau oparoa egongo da eskualdean datozen asteetan egitasmo horren barruan: hitzal-

Laia Eskola da Arabako Foru Aldundiak berdintasuna sustatzeko abian jarri duen egitasmoa

diak, berdintasun topaketak, autodefentsa tailerra, mendi orientazio ikastaroa... Aiaraldea.eus atariko agendan topatu daitezke deialdi guztien inguruko informazioa.

Besteak beste, nabarmendu beharra dago emakumeen genitalen mutilazioan aditua den Adriana Kaplanek solasaldia

eskainiko duela azaroaren 29an Laudion. Arratsaldeko seiretan izango da zita, Kultura Etxean.

Astebete lehenago, aldiz, Aiaraldeko Berdintasun Topaketa egingo da Aiarako udaletxean, azaroaren 17an. Goiz osoko egitaraua prestatu dute egun horretarako, 10:00etatik 14:00etara luzatuko dena.



Araba da erronka

herriz herri

Laudio

Antzoki proiektuaren lehiaketa eten da, helegite bat medio

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Laudioko antzoki proiektuaren lehiaketa etetea erabaki du Euskadiko Kontratuen inguruko Errekurtsuen Administrazio Organoak (OARC), Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak lehiaketaren oinarrien gaineko helegite bat aurkeztu duelako. Elkargoaren aburuz, lehiaketaren oinarriek lehia mugatzen dute, arkitekto askok ezin dituztelako bertan zehaztutako hainbat baldintza bete.

Helegitearen arabera, proposamen irabazlea hautatzeko fasearen diseinuak ez ditu anonimotasun irizpideak betetzen. Horrez gain, zenbait betekizun “gehiegizkoak” direla uste du elkargoak, “lehen hautaketa fasean eraikinaren maketa aur-



Altzarraten kokatu nahi dute antzokia. Aiaraldea.eus

keztea eskatzea kasu”. Gauzak hala, lehiaketa geratzea erabaki du OARCEk kautelazko neurri gisa, helegitea aztertu eta ebatzi arte.

Errekurtsuen organoak helegitea onartzen badu lehiaketaren oinarriak aldatu behar ko dira, eskatutako aldaketak sartzeko.

Bi hilabeteko etenaldia

Jon Ander Altubek adierazi du bi hilabeteren buruan izango dutela ebazpenaren berri. Alkateordeak iragarri du datorren Hirigintza Batzordean landuko dutela gaia, baina nabarmendu du borondate osoa dutela proiektuarekin aurrera jarraitzeko.

Kalistenia parkean eta kirol azpiegiturretan 65.000 euroko inbertsioa abian

Testua

Aitor Aspuru Saez

Laudioko Udalak jakinarazi du kalistenia parkea eraikitzeke kontratazio prozedura abiatu duela. Buletinean plazaratu eta gero, enpresek 10 egun izango dituzte eskaintzak egiteko, eta 6 aste gauzatzeko.

Gimnasia egiteko gune hori eskatzeko sinadura bilketa egin zuten zenbait gaztek, eta laster Goikogane kaleko plazan kokatuko dute. 35.000 euro erabiliko dituzte horretarako eta 144 metro karratuko zabalera izango du parkeak.

Udal langileek atonduko dute zorua eta enpresa pribatuak instalatutako tresnak: barrak, bankuak eta abar, abdominalak eta antzeko ariketak egin ahal izateko.

30.000 euro azpiegiturretan

Horrez gain, Laudioko Udalak hainbat tamainetako lanak gauzatu ditu hainbat kirolari dagokienez. Kiroldegian igerilekuen kortxo-ilarak

aldatu dituzte eta uretako gerrikoak ere berritu dituzte, 2.100 euro baliatuta. Halaber, aulki gurgilduna erosi dute 1.050 euroren truke. Sauna ere ordezkatzeko dute 7.440 euroko gastua eginda. Horrez gain, tatami zorua jarri dute yoga gelan 2.350 euroko inbertsioarekin eta gimnasioan zenbait tresna aldatu dituzte: 2 bizikleta estatiko eta bizikleta eliptikobat jarriko dituzte 5.000 euro horretara bideratu ostean. Korrika egiteko zinta berria ere egongo da eta 2.300 euro balio izan ditu. Aldageletan ere esku hartu dute eta umeentzako aulkia eta aldatzailea egongo dira aurrerantzean erabilgarri. Eskubaloia taldeak, aldiz, ate berriak izango ditu. Aipatutako berrikuntza guztiak Granja kiroldegian egin dituzte.

Bestalde, San Martingo futbol zelaian aritzen diren taldeak esku-ohe berriarekin hornitu dira eta atletismo taldeak koltxoneta estaltzeko gurdia izango du. Horrekin saihestuko dute haizeak eramatea.

Aita eta semea atxilotu ditu Ertzaintzak kalean droga saltzea egotzita

23 eta 46 urteko bi gizon-aita eta semea- atxilotu zituen Ertzaintzak iragan Laudion, kalean droga saltzea egotzita.

Zubiaurkalean atzeman zituzten bi pertsonak, ostegun arratsaldean. 6 kokaina dosi eta bi haxix zati zeramatzaten gainean, poliziaren esanetan. Euren etxebizitza eta ibilgailua ere miatu zituzten, eta beste 16 kokaina dosi eta hainbat haxix zati topatu zituzten. Droga mozteko tresnak eta dirua ere topatu zuten etxebizitzan.

Ikerketa

Segurtasun Sailak jakinarazi du iragan udan hasi zirela bi pertsona horien jarduna iker-tzen, hainbat bizilagunek ohartarazita.

Zaintza-unitate bat abiatu zuen orduan poliziak, zeinen bidez konprobatu ahal izan zuten bi atxilotuek kontsumitzaileekin kontaktatzen zutela kalean substantzien salerosketak gauzatzeko. Epailearen esku utzi dituzte bi susmagarriak.

Urduña

Aterpe irekia eraikiko dute Txarlazo mendiaren magalean



Txarlazo mendiko igoeran, San vitores inguruan, eraikiko dute aterpea. **Zikoina**

Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Mendiko aterpe berria izango du aurki Gorobel mendilerroak, Urduñako San Vitores Mendikoborda elkarteak urtea bukatu aurretik ekingo baitio horren eraikuntzari. Eraikin berria Txarlazoko igoera erdian egongo da kokatuta. “Bidea gailurra bezain garrantzitsua eta pozgarria dela gogorarazteko” aukeratu dute lekua.

Duela 10 urte hasiz urduñar talde bat aterpearen proiektua garatzen. 2013an lehen bilera egin zen Txarlazo Mendi taldearen, Larruazabalgo Administrazio Batzarraren, herriko abeltzainen eta Urduñako Udalaren artean, egitasmoaren oinarriak zehazteko. Gerora sortuko zen San Vitores Mendikoborda elkarteak hartu du aterpea gauzatzeko ardura.

Obrak hasi aurreko azken prestaketak lotzen dabiltza orain elkarteko kideak. Urtea bukatu aurretik ekingo diete lanei, eta auzolanean antolatze-ko aukera aztertu dute. Orotan

ra 17.000 euroko kostua izango du aterpeak.

150 metro koadro

75 metro koadroko harrizko aterpe bat izango da, “paisaian integratzeko helburuarekin”. Atariarekin batera, 150 metro koadro izango ditu guztira proiektuak.

Aterpe irekia izango da, Gorobel mendilerroan ezaugarri hau duen lehen aterpea bihurtuz. “Europa iparraldean oso ohikoa da eredu hori baina eskualdean lehenengoa izango da”, azaldu dute egitasmoaren sustatzaileek. Interes eta beharra duen orok erabili ahaliko du, beraz, Txarlazo magaleko aterpe hori, “elkarrizketarako, bokata bat elkar banatzeko, izarrak ikusteko, hausnarketarako... espazioa izango da”.

Aterpearen kudeaketaz, mantenuaz eta garbiketaz San Vitores Mendikoborda elkarteak arduratuko den arren, mendizale guztien laguntza eta kolaborazioa eskatu dute, “guztiontzako leku jasagarri eta atsegin bat eraikitzeko”.

Urduña Hiria Lorez Apaintzeko lehiaketak baditu irabazleak

13 parte hartzaile egon dira Urduña Hiria Lorez Apaintzeko lehiaketan, 4 saltoki eta 9 aukide partikular. Ekimenaren bosgarren edizioa izan da aurtengoa eta ondorengo pertsona hauek izan dira irabazleak: Lui-

sa Baños (Kale Barria, 19), Gloria Ortega (Burgos, 10) eta Xabier Sobron (Eras de Polanco, 2). Bi saltoki ere saritu dituzte: Meliton eta Ortega okindegiak. Hilabete honetan egingo dute sari banaketa.

herriz herri

Aiaraldea

Tubacexek iaz baino 11 aldiz gehiago irabazi arren, ez ditu langileen baldintzak hobetu



Greba egin zuten Tubacex Taylorreko langileek udan. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

12,4 milioi euroko irabazi garbiak izan ditu Tubacexek urtariletik irailera bitartean. Igoera oso nabarmena da hori Aiaraldean finkatutako talde multinazionalarentzat, iaz 1,1 milioi euro baino ez baitzituen irabazi denbora tarte berean. Salmentetanigoera nabarmena (%40,3koa) izan du, 519,9 milioi euroko marka erdietsita.

Epeertainerako aurreikuspena “oso positiboa” dela nabarmendu du Jesus Esmorisek. “Proiektu asko ditugu esleipen zikloan”, azaldu du enpresaren kontseilari delegatuak. Gauzak hala, 2019a

“berreskurapenean” igaroko dutela eta 2020 eta 2021an sektorean “zabalpen indartsua” egongo dela aurreikusi dute zuzendaritzako kideek. Erantsi dutenez, Tubacexen estrategia urte askoko proiektu handietan oinarritzen da. Tokiko enpresetan eginiko ekoizpen eta garapen teknologikoa elkarlanean egiten dute produktua bidaliko den herrialdeetako lehen mailako enprekin. “Estrategia horren arrakastaren seinale da Egiptoko Gobernuarekin eginiko akordioa energia nuklearra garatzeko”.

Tokiko lantegietako egoera
Emaizta oparo horiek kontraste nabarmena dute enpresak es-

kualdean dituen lantegietako egoerarekin. Izan ere, Tubacex Taylorreko kideek sei eguneko greba egin zuten udan lan hitzarmenaren defentsan, eta enpresak bi langile kaleratu zituen.

“Gaur egun egoerak berdin jarraitzen du”, adierazi dute langileen ordezkariak, “kaleratutako bi beharginak ez dituzte berriz onartu eta orain zuzendaritzak urtero 15 egun gehiago lan egitea eskatu digu, baina hori arrazoitzeko inolako plan industriarik aurkeztu gabe”. Eusko Jaurlaritzarekin bilerak egin dituzte Tubacex Taylorreko beharginak. “Lan departamentuaren deia zain gaude, laster izango ditugu albiste gehiago”.

Ehundik gora bizilagun bildu dira elkarrekin bazkaltzeko



Arrakastatsua izan da Bizilagunak egitasmoa Aiaraldean. Hainbat kultura eta jatorrietako herritarrak bildu ziren asteburuan elkarrekin bazkaldu eta, modu horretan, harremanak estutzeko.

Kontzentrazio esparru nazietan amaitu zuen miliziano bat, San Pedron

Azaroaren 1ean egin zuten ateirekien jardunaldia San Pedro mendiko indusketetan. Modu horretan eman zioten amaiera aurtengo kanpainari.

Jakinarazi dutenez, oso aurkikuntza interesgarria egin dute indusketetan, gainera. “Pertsona zehatz bati erreferentzia egiten dion objektua topatu dugu, mendian borrokatu zuen miliziano komunista batena”, azaldu du Josu Santamaria arkeologoak.

Gaineratu duenez, pertsona horrek nazien kontzentrazio esparru batean preso amaitu zuen, baina momentuz ez dute xehetasun gehiago eman nahi izan, pertsona horren senideekin harremanetan jarriko direlako lehenbizi.

Organikoaren birziklapena %25 handitzea xede

“Aiara, berde eta garbi!” kanpaina abiatuko du Aiarako Udalak, “hondakinen bilketa selektiboari bultzada eman eta Europar Batasunak ezarritako metara gerturatzeko”. Erronka zehatz bati helduko diote horretarako: Luiaondon eta Arespalditzan gai organikoaren birziklatzea %25ean handitzea 5 hilabetetan. Etxez etxe banatuko dituzte horretarako informazioa eta tresnak, eta datorren azaroaren 24an mahaia jarriko dute Luiaondon. Padura kalean egongo dira 11:30etik 13:30etara, ekimena jendarteratzeko. Ezarritako helburua betetzen badute, tokiko produktuen 15 saski zozketatuko dituzte birziklatzen duten familien artean.

Gabonetako postal, komiki eta ipuin lehiaketa abian

Haurrentzako Gabonetako lehiaketa antolatu du Aiarako Udalak. Udalerrian erroldatuak dauden edo bertako eskolan ikasten duten 6-12 urte bitarteko ume guztiek parte hartu ahal izango dute egitasmoan, hiru kategorietan banatuta.

Lehen kategoria 6-8 urte bitartekoei zuzendua egongo da. Gabonetako postala egin beharko dute modalitate honetako parte hartzaileek. Postalak euskaraz idatzitako lau lerro izan beharko ditu gutxienez. Bigarren kategoria 8-10 urte bitartekoen izango da (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak). Komiki bat aurkeztu beharko dute, orri batekoa gutxienez eta bikoa gehienez. Hirugarren kategoria 10-12 urte bitarteko haurrena izango da (5. eta 6. mailak). Ipuin bat osatu beharko dute, gutxienez orri bateko luzera eta gehienez orri eta erdikoa izango duena. Ipuin, komiki eta postalak eskuz eginda aurkeztu beharko dira udaletxean edo Etxaurren Ikastolan. Abenduaren 5a izango da horretarako azken eguna.

Bi sari egongo dira kategorია bakoitzeko. Antolatzaileek aurreratu dutenez, sari guztiak opariak izango dira.

elkarlan asesores
www.elkarseguro.com

Aholkularitza:
Lanekoa, fiskala, kontabilitatekoa eta juridikoa

www.elkarlan.eu

Foru kalea, 2. **AMURRIO**.
Tel 945 39 33 51

Lamuza, 12. **LAUDIO**.
Tel 946 72 74 28

Torre de Ugao, 12. **UGAO**.
Tel 946 03 91 65



Indarkeria matxista, horma ikusezin



Indarkeria matxistak forma eta aupegi asko ditu. Hezkuntzan, lan munduan, aisialdian, kirolean, kulturean... Egunerokoan, eremu askotan identifika litezke matxismo zantzuak. Emakumeek zer nolako zapalkuntzak bizi dituzte agerikoa k ez diren biolentziengatik? Araudi eta sisteman, zein aldaketa eman beharko lirateke jendarte feminista eta justuagoa izateko?



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Eutsialahautsi, hordagokoxka. “Indarkeria matxistan jarrera neutroak ez dira existitzen”. Argi du hori Izaskun Garcia Bordagarayk. “Egunerokoan guztiok erreproduzitzen ditugu jarrera matxistak, sistema patriarkalean hezi gaituztelako. “Inkontzienteki zenbait jarrera onartu edo mantentzen ditugu, nahiz eta geroz eta kontzientzia gehiago izan”.

Zeintzuk dira, baina, indarkeria matxistaren adierazle horiek? Ez al dira mikromatxismoak makromatxismo? Aisialdian, hezkuntza, lan eta bestelako harremanetan, kirolean, kulturean... presente eta errotua

dago indarkeria matxista. “Mikromatxismoak hain dira ezkutukoak, ezen eta egunerokotasunean ikasita eta oso barneratuta baitaude, kontziente ez izateraino”, azaldu du Ixone Collado oroitzoarrak. Jone Unzaga audioarraren ustez, horregatik dira identifikatzeko zailagoak: “Horrek ez du esan nahi txikiagoak edo garrantzitsuagoak ez direnik: gauzak matxistak dira edo ez. Ez da sailkapenik egin behar”.

Indarkeria nonahi

Adibideak soberan dituzte biek. “Komunera joatean ohikoa da ikustea ‘señoras’ edo ‘caballeros’ txartela. Hori matxismoa da, emakumeak gutxiesten ditu, ‘dama’ litzateke parekidea”,

aipatu du urrutira joan gabe Colladok.

Unzagak, berriz, Eskola garaia ekarri du gogora, amantala berdea zeramanekoa: “Neskek arrosa zuten, eta mutilek urdina edo berdea. Nirekin sartzen ziren ez nuelako definituta zer nintzen”. Jai giroan ere jasan du indarkeria matxista, taberna edo jaietako parrandetan kasu: emakumea sexu objektu gisa azaltzen dute abestietan... “Gauza batzuk aldatzen ari dira, baina ez eremu guztietan. Nik, esaterako, Laudioko festen antolakuntzan urteak daramatzat; eta gehienak neskak garen arrenez dugu inoiz izan arduradun edo bozeramaile emakumerik”. Adibide errealekin jarraituta, gidarieko jorera aipatu du: “Autoa aparkatzean

Hezkuntzan, lan munduan, aisialdian, kirolean, kulturean... Eremu askotan identifika litezke jarrera matxistak

mutil batekin bagoaz inork ez digu ezer esaten edo arraro begiratzen, baina bakarrik bagaude bai: nola utzi kotxea, norantz jo behar dugun...”.

Horregatik, ezkutuko indarkeria matxista ikustarazteko egin behar da lan, Maddi Isasi Azkarraga Otsemeakeko ki-dearen aburuz. Bikote harremanetan, adibidez: “Askotan hitz egin baina kontrolatzen ez dugun alde iluna da sare sozial edo telefonoarena, egunero erabiltzen ditugu tresnak kontrola edo jarraipena egiteko, gazteen artean batez ere”. Espazio ez-mis-toen beharraz mintzo da haatik: “Neska gazteok pairatzen ditugu problematikak, horregatik behar dira aliantza eta estrategiak. Gako nagusia bizipen eta

erreportajea

esperientzietatik kolektiboan antolatzea da, parte hartzea, hausnarketak konpartitzea... Norberak dauka eguneroko praktike-tatik eragiteko gaitasuna, baina kolektiboan borrokatzeak eraldatzeko ahalmen handiagoa ematen du”.

Zentzu horretan, emakumeen parte hartzeari helduta, erabakiguneetara gerturatzeari beharrezko deritzo amurriarrak: “Herri mugimenduetan parte hartzeko moduz ezberdinak aztertu beharko lirateke. Botere harremanak ez dira bakarrik nork hartzen dituen erabakiak, nola hitz egiten dugun, zein jarrera ditugun, eta horrek besteengan duen eragina ere bai”.

Zernolako eredu edo erreferenteak dituzte gazteek, ordea? Kezkatuta dago Isasi, telebista edo musika eskaintzagatik, besteak beste: “MTV edota Euskadi Gazteako musikan eredu kapitalista, sexista eta heteropatriarkala goratzen da egunero, estereotipo jakinak landuta. Gazteei zein intentsitatekin iristen zaizkie horrelako mezuak? Nolako eragina dute bonbardaketa horiek gure bizi proiektuak eraikitzeke orduan? gizarte eredu indibidualista, kapitalista eta heteropatriarkala indartzen dute”, salatu du.

Komunikabideen katebegiak barrutik ezagutzen ditu Kaitin Allende okondoarrak. “Emakumea erailtzean doa soilik letrorburuetara. Azaletan ez gara agertzen, ezta kontrazaletan ere, nahiz eta gehiengoa emakumea izan”. Gaietan eta adierazpene-tan ere, ikusezin bilakatu dituzte emakumeak, irrati esatariaren iritziz. “Futbolean, karatean edo soka tiran munduko onenak izanda ere beti lantzen da futbo-

la, eta beti gizonetzkoena”, kritika-tu du. Soluzioa ez da erraza: “Eta era berean oso erraza da. Gure esku dagoen guztia egiten badu-

Gazteen arteko erlazioetan ohikoak dira botere harremanak edota kontrolatzeko tresnak, telefono edota sare sozialen erabilera kasu. Bizipenak konpartitzeko, ahalduntzeko eta eraldatzeko espazio ez mistoak ere behar dira

gu denok, pauso txikiak eman ez lortuko dugu edozer. Esaterako, Bilboko itsasadarrean gabarra ateratzea neskek irabazten badute. Bakoitzari bere balioa ematea eskatzea ez da asko, baina bide erdia da”.

Matxismoa kiroletan
Futbolean ez ezik, beste zenbait kiroletan ageri da zapalkuntza. Luzea da zentzu horretan Gentzane Alday pilotari orozkoarraren zerrenda: eskupilota partidetan edari zerbitzariak beti dira neska “politak”, kategoria femininoetan ez dute eskupilota txapelke-

ta erregularrik, 12 urtetik gorako neskatilek ezin dute eskupilotan lehiatu... Eta, hori gutxi baltz, herriko elkartearen frontoian entrenatzeko aukera ukatu diote: “Orozkon entrenatzera bueltatu nahi nuela esan eta ezetz esan zidaten, palan 20-30 neska zeudela, eta hori zela nire aukera bakarra”. Kantxan ere sutu dute jarrera matxistek Alday, “begira zein pilotari ederrak”, “hori meritua, ama eta pilotaria!” edota “nola apurtuko dituzu eskuak diren politekin?” bezalako esaldiak entzutea egokitu baitzaio. “Mutilei ez diete hori esaten. Eta, jakina, familia ardura batzuentzat amarena da, aitzak ez dira pilotariak ere ala? Erantzukizuna ez da berdina, antza”.

Zail ikusten du soluzioa Aldayk, inork ez du apustu egiten kirolean kategoria femininoen alde eta. Eskupilota adibidetzat hartuta, adin tarte guztietarako liga aukera bermatzea du irtenbidetzat, “geroz eta emakume gehiago egoteko”.

Zurrunmurrak matxistak
Indarkeria matxistaren aurka beharrezkoak dira instituzioak, hamaika baliabide jartzen baitituzte herritarren eskura. Dena den, tokiko erakundeetan ere nabari da mikromatxismoen presentzia. “Bileretan emakumeok autoritate gutxiago dugu. Administrazioan emakume gehiago daude alor teknikoetan baino, mantenu zereginetan gizonetzkoak dira gehienak... lanaren banaketa oraindik sexuaren arabera da”, aitortu du Miren Urresti Aiara Kuadrillako berdintasun teknikariak. Kontzientziazioa eta ahalduntzea areagotzeko, baina, ezinbestekotzat ditu instituzioak. “Nolakoak gara

emakumeak jendartearentzat?” luzatu du galdera Urrestik. Baita erantzuna ere: “Matxismoari esker ahoberoak gara, kexatiak,

Kirol eta kultura eremuetan ere emakume zein gizonetzkoek ez dituzte baliabide berak. Iritzi matxista ugari jasan behar dituzte jardun horietan dabilzan profesionalek

ahots sinesgarriak gabeak (Nik sinisten dizut kanpaina, esaterako, zurrunmurrak matxistei aurre egiteko da)”. Salaketa faltsuen afera ere kokatu du testuinguru horretan, aurre egin beharrekoe-tan alegia. Zeregin horri erantzuteko badira eskolak, Laia, besteak beste. “Bakarrik matxismoari aurre egitea oso zaila da. Eskualdean badira batzeko guneak, bai erakundeetan eta baita hortik aparte ere. Espazio horien arteko koordinazioa eta elkarlana lortu behar dugu, hori da bidea”. Gizonetzkoek ere, maskulinitate berrien inguruan hitz egitea berebizikotzat du teknikariak, euren ekarpena egiteko espazioak sor ditzaten: “Gizonetzkoek pribile-

jioei uko egin behar diete denok eskubide berdinekin bizitzeko. Ez da irabazi edo galtzearen kontua, justizia da, injustizia handia dago emakumeen kasuan ez ditugulako eskubide, tratatu eta aukera berdinak. Giza eskubide kontua da”.

Ixone Colladok “kristalezko sabaia” dagoela deritzo, instituzioetatik berdintasunaren idealak saltzen direla iritzita: “Egunero ikusten ditugu berdintasunaren aldeko mezuak instituzioetatik, baina ez da egon gaur arte lehendakari emakumerik, ezta hirietan alkate andrazkorik”.

Erasotuaren iruditegiaren erai-kuntza ere, ez du kasualitatetzat. Instituzioetako diskurtsoak medio, “biktima” kontzeptuak pertsona ahula, jipoitua. eraila, kolpatua... iradokitzen duela dio, “biktima kontzeptuak 2-3 aldiz biktimizatzen gaitu. Erasotuak gara, ez biktimak”.

Nola eragin instituzioetan, ikuspegi feministatik baina? Garazi Abrisketa zolloarrak adin tarte baten gabezia somatzen du: “Heldutasunean ematen zaigu emakumeoi zilegitasuna jendarte-an, esperientzia pilatzean edo ama garenean. Emakume gutxi gaude udaletan, zaintza lanetan daudelako”.

Justizia, injustizi
Tokiko erakundeetatik harago, La Manada-ko epaiak justizia eta defentsa sistema auzitan jarri zuen askoreen iritziz. Horieta-ko bat da Lorea Porres abokatua, baina zuzenbide sistemaren arazo edo gabeziak harago doazela garbi du: “Harreman sexual ak-modu askean izatea zer da epaile horientzat? Edozein erlazio-sexual zein afektibo- erabat baimendua eta desiratua izan behar da nire ustez”. Abokatu gisa, be-



Ixone Collado

Gizarte langilea

“Biktima kontzeptua jarri digute, horrek ahuldu egiten gaitu. Erasotuak gara, ez biktimak”



Jone Unzaga

Mugimendu Feministako kidea

“Mikromatxis-moak identifikatzeko zailagoak izateak ez du esan nahi txikiagoak direnik”



Maddi Isasi

Otsemeakeko kidea

“Nola hitz egiten dugun, espazio erabilera, jarrerak... Horiek botere harremanak dira ere”



Txani Rodriguez

Idazlea

“Ipuin klasikoak nahiko gogorrak dira. Gaur egun, gehiago zaintzen da hori”



Kaitin Allende

Kazetaria

“Emakumeak ez gara hedabideetako azaletan ez inon agertzen, nahiz eta gehiengoa izan”

erreportajea



Malene San Pedro
Zuzenbide ikaslea

“Auzitegietan maskulinitatea sistematikoa da. Goi karguetan gizonetzkoak bakarrik daude”



Lorea Porres
Abokatua

“Duela gutxi jaso dugun kasuan, haurdun egoteagatik kaleratu dute emakume bat”



Miren Urresti
Berdintasun Teknikaria

“Gizonezkoek pribilegioei uko egin behar dizkiete denok eskubide, tratu eta aukera berak izateko”



Indarkeria matxista salatzeko ekintza ugari egin dira azken hilabeteetan Aiaraldean. Aiaraldea.eus



rak ere bizi izan ditu zapalkuntzak: “Bezeroek atera edo telefonora deitzean eta emakumeekin topatzean uste dute idazkariak garela. Abokatuak gizonetzkoekin lotzen dira”. Epaitegietan ere, sexuaren arabera, desoreka da nagusi: “Epaile gehienak emakumeak dira Lurralde Auzitegietan, baina goi mailako epaitegietan ez. Emakume erasotutako epaitegetan oso gela txikietan sartzen dituzte, jendez gainezka dauden aretoetan, aireztapen eta argiztapen gutxirekin”. Gizonekoak, aldiz, leku handiagoan daudela dio, “kalera ateratzeko askatasun gehiagorekin”. Oraintsu, emakume haurdun baten kasua heldu zaio, kaleratze gutuna eman baitio enpresak “inolako arrazoirik gabe”.

Malene San Pedro Arias zuzenbidea ikasten ari da. “Maskulinitatea sistematikoa da. Epaile gehienak emakumeak dira, baina goi mailako auzitegietan -ju-

risprudentzia erabakitzen den tokietan-gizonezkoak bakarrik daude. Nola sortuko dugu kontzientzia eta ikuspegi feminista zuzenbidean, gizonetzkoak soilik badaude goi karguetan, eta ez bazea interesatzen?”.

Hezkuntza ardatz

Hezkuntza sistema izan behar da eraldaketarako ardatz. “Derri-gorrezko Hezkuntzan klitorian ez da sakontzen, ugalketa aparatuan bakarrik. Zabaltzen den mezua sexuarena soilik da, plazera eta sexualitatea inbisibilizatu daude”, azpimarratu du Ixone Colladok. Alegia, erreproduktzio-rako balioa gailentzen da ikasketa prozesuan.

Haurren ipuin edo filmeetako erreferenteak jarri ditu kolokan Txani Rodriguez idazleak: “Ipuin klasikoak nahiko gogorak dira, egungo liburuetan gehiago zaintzen da hori. Emakumeok badugu presentzia, baina oraindik ere

Zuzenbide eta justizia sistema ezbaian jarri du, besteak beste, Manada kasuak. Epaitegietan eta legegintzan nola txertatu ikuspegi feminista, epaile gehienak emakumeak izanik ere, goi karguetan gizonetzkoak badaude?

gizonek egiten dituzten gauzak ‘serioagoak’ dira jendearentzat. Jendarte matxista da. Hezkuntza da irtenbide bakarra emakumeak eta gizonetzkoak gauza bera egiteko gai garela normaltasunez ikusteko”.

Argiñe Rodriggez Rivas Guraso Elkarteak kideak umeengan eta gurasoengan jarri du fokua. “Gurasoek ez dugu ezer egiten gure edo beste umeak ez duela jolas-tu nahi neskak edo mutilak bakarrik daudelako diotenean. Txar-to iruditu arren ez dugu moztzen. Zergatik daude neska edo mutilen jolasak?”. Eskolako patioa instituzioetako modukoa da haren-tzat: “Nabaritzen da espazioen konkista”.

Eskolan haurrek egindako zenbait galderekin azaleratu ditu zenbait zapalkuntza: ‘Esan di-date ez nagoela polita txandala dudalak’, ez naizela neska belarritakoak ditudalak, mutilek diote ezin dudala jolastu futbo-

erreportajea

lean pakete bat naizelako... Edo, kontrara, ez hartu karroa, hori maritxuena da! Hizkuntzan eta hezkuntzan hori moztu beharra dago, ez da normala horrelako erreakzioak ateratzea". Gurasoei dagokienean, oraindik ere zaintzaren zama amarengan dago, Rodrigezen hitzetan: "Gero eta aita gehiago datoz eskolara, baina bietako batek ezin badu amek antolatzen dute agenda bilertara joateko". Gogoetarako beste zenbait elementu luzatu ditu guraso orozkoarrak: nork presatzen du ibilaldietako ogitartekoa? Harremanetarako bi telefono utziz gero, norena da lehenbiziko kontaktu aukera? "Kurtso hasierako bileretan eta patioan edo plazan emakumeak dira %80 baino gehiago", jarraitu du, "hezkuntzaren alorra ez ezik sistema osoa aldatu behar da".

Eta lan munduan?
Langintza batzuk orain arte gizonetzkoenak izan dira, fabriken eremuetakoak kasu. Izaskun Bordagaray duela 15 urte sartu zen sindikalgintzan. Ez ditu ahaztu harritu eta larritzen zuen ekin-tza andana: lantegietako emakumezkoen poster biluziak, komentario edo txisteak... "Lantokietara sartzean bulegoko atea bestea zela esaten zidaten. Ni tailerrera nator, langileekin egotera, esaten nien. Gauza batzuk aldatu dira, baina kafe makinaren alboan bilduko bagina, edota espazio horietako emakumeekin elkartuko bagina, komentario eta txite erabat sexistak jasaten dituztelakoan nago".
Sektore feminizatueta goi karguak gizonetzkoek betetzen dituztela-eta, hiru elementu antzeman ditu: kontziliazioa, infantilizazioa eta hierarkia. "Lanaldia murrizteko edota berreskuratzeko eskaeretan, nola erabiltzen da kontziliazioaren gaia?



Iazko martxoaren 8ko greba feministan salatu zituzten zaintza eta lan munduko zapalkuntzetako asko. Aiaraldea.eus

Emakumeon bizkar gainean kokatzen da oraindik familia zama guztia". Infantilizazioa, berriz, erabaki edo informazio garrantzitsuen jakinarazpenean identifikatu du: "Beti dago etxean kontsultatu gisako esaldiren bat.. Gure kabuz erabakitak hartzeko gaitasunik ez bagenu bezala!". Ondorio argia atera du adituak: emakumeak gehienak izanik ere, gizonetzkoek agintzen dute.
Kontzientziazioa eta ahalduntzeko espazioak eta baliabideak ugaritzea da gehienentzat indarkeria matxistari aurre egiteko modua. Emakumezkoek bezala, gizonetzkoek ere lanketa egin behar dutela garbi du Izaskun Bordagarayk: "Deseraikitze prozesua abiatu behar dute, formakuntza feminista dituzten pri-

bilejioak identifikatzeko". Erantsi duenez, badira jakintza garatu duten gizonetzkoak, urrats batzuk eman dituztenak. Horiei posizionamendua eskatuko lieke: "Isilik egoteak mikromatxismoek irautea eta patriarkatuaren ereduari bide ematea suposatzen du. Eurek ere altxatu behar dira, eta pareko gizonetzkoa interpelatu".
Bizipen horiek eta gehiago aurkeztuko ditu Aiaraldea Ekintzen Faktoriak azaroaren 22an Amurrión, 19:00etan Katekesi aretoan estreinatuko baitu mikromatxismoei buruzko dokumentala. Aiaraldea.eusen hilaren 25ean sareratuko da ikus-entzunezkoa. Indarkeria matxistaren aurka egiteko mila modu daudenaren adierazle.



Izaskun Garcia
Sindikalista

“Kontziliazioa, infantilizazioa... Lan eremuan zapalkuntza asko daude”



Argiñe Rodrighez
Guraso Elkarteko kidea

“Hezkuntzaren alorra ez ezik sistema osoa aldatu behar da”



Gentzane Alday
Pilotaria

“Klubak gizonenak dira. Ez da egiten emakumeen kirolen alde”

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna

AZAROAK 25

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODO
www.laudio.eus

14 ASTEAZKENA
18:00 Erabilera anitzeko udal aretoan. Seme edo alaba feminista hazteko aholkuak. Pipertxuriak berdintasunaren aldeko gizonetzkoen taldea.

15 OSTEGUNA
18:00 Kultura Etxean. Informazio-hitzaldia: Aholkularitza juridikoa eta orientazioa emakumeentzat, Hegoak Foru Zerbitzuak Susana Cambra abokatuaren eskutik. Gure eskubideak exijitzeko, lehen eazagutu behar.

17 LARUNBATA
10:00 - 14:00, Alarake udaletxean. Alaraldeko Berdintasun Topaketa. Iriztiak eta ekarpenak jasoko dira, indarkeria matxistaren aurkako Alarake Kuadrillako Protokoloa sortzeko.

18 IGANDEA
10:00 - 14:00 eta 15:30 - 19:30 Autodefentsa tailerra Maitena Monroyren eskutik. Izen ematea Berdintasun Zerbitzuan egin daiteke, 94 403 48 50 telefono zenbakian. Leku kopuru mugatua.

19 ASTELEHENA
19:00 Kasinoan. **El nunca me pegó** dokumentala eta solasaldia Irantzu Varela feministarekin.

21 ASTEAZKENA
16:45 Solastiar 50 primaveras Zineforum-a. LAUDIOALDE zinema aretoan.

23 OSTIRALA
11:30 Acción lanera martxan jartzea Lamuzo Parkean.

18:00 Beldur Barik lehiaketaren sari banaketa Urdunako Bainuetxe-Hotelean.

24 LARUNBATA
17:30 eta 20:00 Zineforuma Custodia compartida filmearekin, Audioalde Zinema Aretoan.

25 IGANDEA
13:00 **ELKARRETARATzea** indarkeria matxistaren kontra Herriko plazan, Solastiar, Arilla, Jakaranda, Biok eta Etawasol elkarteek antolatua.

13:30 AMAGOIA ELEZKANORI omenaldia.

27 ASTEARTEA
18:30 Kasinoan. Bakean dagoena, bakean utzi. Ikusizuna elkarrekin lotzen diren elkarriktetek osatzen dute. Bertan, euskara eta generoari buruzko hainbat kontu aletzen dituzte, umorearen baturarekin jantzita: euskalkiak, amatasuna, onomatopelak, gorpuzkerak, euskarakadak... Bakean dagoena bakean uzteko ez daude prest! Euskaraz.

29 OSTEGUNA
18:00 Kultura Etxean. **SOLASALDIA...** Adriana Kaplanekin, proiektuaren koordinatzailea, Wassu-UAB Fundazioaren Zuzendaria "Behatokia eta estrategia berriak emakumezkoen genitalen ebaketa prebenitzeko: Ezagutu, aritzeko".

30 OSTIRALA
18:00 5 urtetik gorako umeentzat. **IPUIN KONTALARIA** udal liburutegian. **IPUIN-KONTAKETA:** Izaskun Mujika GORPUTZ OSOKO IPUINAK



agenda

2018/11/14

2018/11/28



Musika banden topaketa

egingo dute Urduñan

Indartsu dator Urduñako Musika Astea. Biasteburu iraungo ditu, eta Liborio kolektiiboak antolatzen duen poteo musikala izango du ardatz. Egitasmo horren VII. edizioa izango da aurtengoa.

Aurten nobedade esanguratsu batekin dator: Musika banden topaketa egingo dute azaroaren 17an -larunbata-. Urduñako

izango dira ekintza nagusiak. Santa Zeziliako kideek azaldu dutenez, hiru banden arteko lotura Jesus Urrutia izanda. “Gure bandako zuzendari gonbidatua izan da duela 15 urtetik hona, eta San Asensioko Bandako zuzendaria ere bada, eta laster Eskoriatzako Bandan ere arituko da”.

Itxarkundia eta Korrontzi batera ikusgai

Emanaldi bateratua eskainiko dute Korrontzi musika taldeak eta Itxarkundia dantza talde audioarrak. Datorren larunbatean -azaroak 17- izango da zita arratsaldeko zazpjetan, Laudioko Granja kiroldegian. Sarrerek 10 euro balioko dute eta

ondorengo establezimenduetan eskuratu daitezke: Indriska, Haitzulo Barri, Kendas, Trenpea eta Zuhaizta liburudenda. Lau urtetik beherako umeak doan sartu ahaliko dira.

Itxarkundiaren 40. urteurrena ospatzeko antolatututeek italdia.



Ekintza andana

indarkeria matxistaren aurka



Dozenaka jarduera egingo dira eskualdean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta. Ekintza horietako asko udalek eta Arabako Foru Aldundiak -Laia eskolaren bidez- antolatatu dituzte. Beste batzuk, al-diz, eragile eta elkarteek egingo dituzte.

Azaroaren 25ean elkarretartatzeak egingo dira herri gehienetan, eta Laudio Amagoia Elezkano omenduko dute, gizon batek duela bost urte eraildako emakumea. Aiaraldea.eus atarian kontsultatu daitezke egitarau guztiak.

Herriko 11 sortzailearen lanak Kultura Etxean



Laudioko Kultura Etxean ikusgai dago “Begirada berriak” erakusketa, larunbatera arte. Herriko hamaika artisten lanak bildutuzte. “Osorakus-keta anitza da. Keramika, pintura, collageak, musika elektronikoa... diziplina asko batu ditugu”, adierazi dute antolatzaileek.

MUSIKA

11.16 Ostirala

POTEO MUSIKALA
19:00 // Mikel Romero dua, Meli's tabernan
19:30 // Perl Fly, Hiria tabernan
20:00 // Tobaco Road, Gernika tabernan
20:00 // Pintxo-potea Getxa Goirekin
23:00 // Los Peces del Nervión, Romulo tabernan

11.16 Ostirala

20:00 AMURRIO
RISE TO FALL, DORMANTH, TEKUSO ETA DEIMOCRACY
Burubio kultur elkarte

11.17 Larumbata

MUSIKA BANDEN TOPAKETA
12:00 // Herrera Foru plazan eta kalejira
13:30 // Kontzertua
19:30 // Kontzertua

11.17 Larumbata

POTEO MUSIKALA
13:00 // El Hierro, Sukalki tabernan
13:00 // Carlos Velasco Duo, Sortetxe tabernan
13:00 // Asuca namá, Larena tabernan
13:30 // Lee Junior, Sutegi tabernan
13:30 // 14 cuerdas, Batzokian
14:00 // Gwa Ya, Jubilatuen Klubean
17:30 // Music Box, Frontoi tabernan
23:00 // Eriz & Totum Revolutum, Lupardika tabernan

11.17 Larumbata

20:00 LAUDIO
LOS PECES DEL NERVIÓN
Tolo taberna

11.17 Larumbata

22:30 LAUDIO
GUDAZALEAK ETA FALSA BANDERA
Sarrera: 4 euro
Drumgorri

11.17 Larumbata

23:30 LAUDIO
AKERBELTZ
Cordia

11.17 Larumbata
11:00 OROZKO
JOLASAK
Zubiaur plaza

11.17 Larumbata
17:30-19:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Lamuza parkeko ludoteka

11.18 Igandea
16:30 TERTANGA
DOMEKERÓ
Eskolan

11.18 Igandea
17:00 MENOIO
IGANDE ARRATSALDEAK FAMILIAN
Kontzeju etxea

HITZALDIAK

11.17 Larumbata
11:30 ARTZINIEGA
“KONPOSTAJEA ETA IZURRITEI AURRE EGITEKO ESTRATEGIA EKOLOGIKOAK”
Izena aurretik eman behar da udalera deituta
Udaletxea

11.17 Larumbata
11:30 AMURRIO
“FICHAS DE CASINOS ESPAÑOLES, SOCIEDADES Y JUEGO 1890/1960”
La Casona

KIROLA

11.16 Ostirala
19:00 ARETA
4 1/2-KO ELITE TORNEOA
Frontoia

11.18 Igandea
10:00 LAUDIO
XXXIV. LAUDIOKO IBAR KROSA
Ellakuriko kirolgunea

BESTEAK

11.16 Ostirala
17:30 URDUÑA
ZUMBA ETA EUSKARALDIAREN KOREOGRAFIA SAIOAK
Foru plaza



Kartelera

Agoteei buruzko liburua
aurkeztuko du
Santxotenenak

El orgullo de ser agote liburua idatzi du Xabier Santxotenenak, Josu Legarretarekin batera. Erein argitaletxearekin plazaratu dute lana, eta ostiral honetan-azaroak 16- aurkeztuko dute, 19:30ean Santxotena Museoan. Agoteen mila urteko historia kontatzen du liburua.



LAUDIOALDE
ARETOA

Caras y bugares
AZAROAK 17,
LARUBATA
Sarrera: 2 euro

17:30 / 20:00



DONIBANE
ARETOA

Hotel Transilvania 3
AZAROAK 18,
IGANDEA Helduek 4,5 euro
eta haurrek 3,5 euro

16:30



AMURRIO
ANTZOKIA

Christopher Robin
AZAROAK 18,
IGANDEA
Sarrera: 3,7 euro

17:30



DONIBANE
ARETOA

La buena esposa
AZAROAK 18,
IGANDEA Helduek 4,5 euro eta
haurrek 3,5 euro


19:00



AMURRIO
ANTZOKIA

Cold war
AZAROAK 18/19,
IGANDEA eta ASTELEHENA
Sarrera: 4,9 / 3,7 euro

19:30 / 20:00



LAUDIOALDE
ARETOA

50 primaveras
Azaroak 21,
ASTEAZKENA
16:45



LAUDIOALDE
ARETOA

Custodia compartida
AZAROAK 24,
LARUBATA
Sarrera: 2 euro

17:30 / 20:00



AMURRIO
ANTZOKIA

Viaje al cuarto de una madre
AZAROAK 25/26,
IGANDEA eta ASTELEHENA
Sarrera: 4,9 / 3,7 euro

19:30 / 20:00

11.18 Igandea
12:30 OKONDO
ARANTZABELA ABESBATZA
Untzagako eliza

11.18 Igandea
URDUÑA
POTEO MUSIKALA
13:00 // Lupita, Gorobel tabernan
13:00 // Baster, Marrazki tabernan
13:00 // Gonzalo Portugal, Bar X tabernan
13:30 // The Binilos, Orduña Plaza hotellean
13:30 // La Mara, La Posada tabernan
14:00 // Devils, Belatz Gorri tabernan

ANTZERKIA

11.17 Larumbata
20:00 AMURRIO
“BIOPIRACY”
Sarrera: 4 euro
Amurrio Antzokia

TAILERRAK

11.18 Igandea
10:00 LAUDIO
AUTODEFENTSA TAILERRA
Izen ematea Berdintasun Zerbitzuan egin daiteke
94 403 48 50 telefono zenbakian

UMEENTZAKO EKINTZAK

11.16 Ostirala
17:00 OROZKO
IPUIN KONTALARIA
Udal liburutegia

11.16 Ostirala
18:00 LAUDIO
“MARIPUZKER EDO KANDELA?”
Udal liburutegia

11.17 Larumbata
11:00 URDUÑA
GEOKATXING
Foru plaza

11.16 Ostirala
18:00 ARESPALDITZA
KONPOST KATA
Gizarte etxea

11.16 Ostirala
19:30 ARTZINIIEGA
“EL ORGULLO DE SER AGOTE” LIBURUAREN AURKEZPENA
Santxotena museoa

11.16 Ostirala
21:00 ARANKUDIAGA
GIZARTE ETXEKO LAGUNTZAILEEN AFARIA
Gizarte Etxeko tabloian eman behar da izena azaroaren 15a baino lehen.
Gizarte etxea

11.17 Larumbata
10:30-14:30 LAUDIO
BIGARREN ESKUKO BINILO, CD ETA LIBURUEN MERKATU SOLIDARIOA
Araba eta Zumalakarregi etorbideetan

11.17 Larumbata
11:00 ARTZINIIEGA
EUSKARALDIA: IBILBIDEA ARTZINIIEGAN BARRENA
Frontoia

11.17 Larumbata
ZOLLO
ZOLLOKO JAIAK
15:00 // Herri bazkaria, Roberto eta Idoliak girotuta
20:00 // Jalen amaierako txupinazoa

11.17 Larumbata
19:00 LAUDIO
KORRONTZI ETA ITXARKUNDIAREN IKUSKIZUNA
Sarrera: 10 euro
Granja kiroldegia

11.17 Larumbata
19:00-21:00 AMURRIO
DANTZALDIA
Nagusien etxea

11.18 Igandea
9:30 OROZKO
IBILALDIA
“Hi-ho, hi-ho... mendira lanera”
Orozkoko museoa

INFO +
aiaraldea.eus



ESTETIKA GIDA

Neguak azalean eta ilean eragin ditzakeen ondorio negatiboak ekiditeko aholkuak

Neguan ere komenigarria da norberaren azalaren eta ilearen egoerari erreperatzea, temperatura aldaketek eragin negatiboa izan dezaketelako. Horrez gain, klima hotza lagungarria da azaleko tratamenduak aplikatzeko. Eskualdean badaude hainbat aditu urteko garai honetan norberaren estetika mantentzen lagundu dezaketenak.



Komeni da dutxako temperatura erregulatzea, azalaren deshidratazioa ekiditeko.

Estetikari lotutako tratamenduak udarekin lotu izan ohi dira. Hala ere, neguan komenigarria da azalaren eta ilearen zaintzaren gainean egotea, klima aldaketak eragin ditzakeen eragin negatiboak ekiditeko batez ere.

Neguko temperatura hotzek azala lehortzea eragin dezakete, dermisak ez dituelako behar beste elikagai eta oxigeno jasotzen.

Gauzak hala, hainbat pauso jarraitzea gomendatzen dute adituek. Alde batetik, etxeko temperatura erregulatzea iradokitzen dute, kalera ateratzea kontrastea horren handia izan ez dadin. Komenigarria da ere azala egunero hidratatzea eta dutxan ur beroegia ekiditea. Elikadurari ere erreparatu behar zaio: C bitamina eta antioxidatzaileak dituzten elikagaiak jan (frutak eta barazki freskoak bati bat), eta egunean 1,5 eta 2 litro ur artean edan. Hortik harago, neguak hainbat aukera ematen ditu. Azaleko orbanak kentzeko garairik aproposena da, adibidez. Hori dela eta, une egokia izan daiteke pigmentazio tratamenduak egiteko.

Hotzaren eragina ilean

Ilean ere eragina dauka neguko klimak. Sikatu egiten da eta bizitasuna galtzeko joera du, distiragaltu eta erortzeko joerarekin. Arrazoa berdina da: etxeko temperatura beroen eta kaleko giro hotz eta hezeen arteko kontraste bortitza.

Arestian aipatutako guztiaz gain, adituek gomendatzen dute neguan ere eguzkitako betaurrekoak erabiltzea. Elurra dagoen zonaldeetan eguzki erradiazioaren %80 islatzen da eta horrek eragin negatiboa izan dezake begien inguruko azalean.



ESTETIKA ZENTROAK



larmintz
estetika

- Manikura eta pedikura normala eta semipermanentea
- Depilazioa (laser eta argizariarekin)
- Aurpegi-tratamenduak
- Solarium horizontala
- Makillajea

Zumalakarregi 30, Laudio 94 672 42 65  679 387 787

ILE-APAINDEGIAK



ilerako tratamenduak

ELUMEN

Euskal giroa

Baia kalea, 6 LAUDIO 94 643 52 60



Ile mozketza
Bizargintza

Pasa zaitez hitzordurik eskatu gabe

Restelehenetik ostiralera:
9:30-13:30 16:00-20:00
Larunbatetan: 9:00-13:00

Maestro Elorza kalea 1, LAUDIO



Ileapaindegia

Produktu naturalekin lan egiten dugu:

- Buztin-kolorazioa
- Ilerako terapiak

Lamuza 25, LAUDIO · 94 672 53 82

BIZARGINTZA



ILE-APAINDEGIA
ESTETIKA
DIODO LASERRA

Batas 6. behe / / audio / / 94 602 76 94

RITI ILEPAINDEGIA RITI PELUQUERIA
DEGIA RITI PELUQUERIA RITI ILEA
I LE A P A R I T I
PELUQUEI RITI LEAPAINDEGIA
ILEAPAINDEGIA RITI RITI
RITI RITI ILEAPAINDEGIA RITI RITI



RITI

Batzalarrin 2 - LAUDIO ☎ 94 672 11 88

ESTETIKA



Masaje zentrua
Terapia alternatiboak
Estetika

JASONE MEABE
Baia 7, audio
☎ 688 696 619

ESTETIKA ZENTROAK



Masaje terapeutikoak
Masaje lasaigarriak
Aurpegi-tratamenduak
Gorputz-tratamenduak
Estetika-tratamenduak

Zumalakarregi 28, LAUDIO www.suryallodio.es
944 030 362 · ☎ 688 887 950   @SuryaLludio



Zure gorputza errespetatzen dugu, tratamendu ez-inbaditzaileak eta kosmetiko ekologikoak erabiltzen

Gorputz- eta aurpegi-tratamenduak
Diatermia
Diodo laserra

SENTSAZIOAK OPARITU
denboraldiko errituarekin

MENDIKO SEKRETUAK
GABONETAKO IPUINA
ZURE BIDEA ELIKATU



☎ 605 74 72 29 · Izaskun Udaeta · Larrinaga kalea 4, 5 behea AMURRIO



* Kupoi honekin
Aurpegi eta gorputz tratamendua
%10 merkeago

Depilazioa
(laser eta argizariarekin)
Manikura eta pedikura
Solariuma eta presoterapia
Estetika tratamendu pertsonalizatuak

Ardantzazar 1, LAUDIO ☎ 688 73 28 60  Coquetteestetika

Kultura

“No decimos nada” ikus-entzunezko proiektua grabatu du Luis Vilek, hainbat herritarrekin



Amurrio Antzokian egin dituzte grabaketak. Luis Vil

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Asteburu honetan grabatu du Luis Vilek *No decimos nada* ikusentzunezko proiektua, Amurrio Antzokian. Vladimir Maiakovski poeta errusiar komunistaren *Eta ez genuen ezer esan* olerkia musikatu du artista amurriarrak, Maria Rivero abeslariarekin batera. Biak agertzen dira bideoan kanta abesten, hainbat herritarrekin batera.

Maiakovski oinarri
“Maiakovskiren poema hori mundu guztiko eskoletan

memorizatu beharko litzateke, etorkizuneko belaunaldiek ez dieten berriz men egin asmo totalitarioak dituzten fartsa politikoei”, adierazi du Vilek. Zinemagile eta musikari amurriarrak eskerrak eman dizkie grabaketan parte hartu duten pertsona guztiei.

Gorka Chamorro ugaoarra aritu da kamalari gisa, eta Alfredo Remirezek ere hartu du parte egitasmoan. “Eskerrak eman nahi dizkiot, espetxeak ez dizkiolako sinesten duen horretan borrokatzen jarraitzeko gogoak kendu”, aipatu du Vilek saresozialetan zabaldutako mezu baten bidez.

Abian dago Orozkoko Film Laburren lehiaketa, hirugarren urtez jarraian

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Film laburren lehiaketa jarri du abian Orozkoko Supelaur elkarteak, hirugarren urtez jarraian. “Hogei urtedaramatzagu herrian filma laburren jaialdiak antolatzen”, azaldu du Andres Larrinagak, “bainaduelahiru urte lehiaketa propioa sortzea erabaki genuen, herriko jendearen parte hartzea sustatzeko”.

Hala ere, elkarteko kideak nabarmendu du parte hartzeko ez dela beharrezkoa izango orozkoarra izatea. “Euskal Herri osoko lagunak izango dira ongietorriak”. Bideoek hiru

baldintza bete beharko dituzte: gehienez 15 minutuko iraupena izatea, Orozkok presentzia izatea eta euskaraz grabatuak edo azpituatuak egotea.

Azken eguna, abenduaren 10a Posta elektroniko bidez bidali beharko dira lanak, supelaurkt@gmail.com helbidera. Abenduaren 10era arte egongo da horretarako tartea. Hiru sari egongo dira. Lehena 300 eurokoa izango da, bigarrena 150 eurokoa eta 100 eurokoa, aldiz, hirugarrena. Supelaur elkarteko kide batek eta udaleko Kultura Saileko ordezkaria kegingo dituzte epaile lanak.

35. urteurrena prestatzeari ekin dio Aiara Dantza Taldeak



35 urte beteko ditu Aiara Dantza Taldeak 2019an. Hori dela eta, zenbait ospakizun egingo dituzte. Lehen egitasmoa gauzatu dute dagoeneko: datorren urterako egutegia plazaratu dute. Taldeak Reforren duen egoitzan erosi daiteke ostiral arratsalde eta larunbat goizetan, 10 euroren truke.

Dantzaldia antzokian

Beste hainbat ekimen ere antolatu nahi dituzte. “Amurrio Antzokian dantzaldia egitekoa asmoa dugu, oraindik guztiz itxita ez dugun arren”, aurreratu du Iraia Aspuruk.

Hala ere, dantza taldeko kideak nabarmendu du “ekitaldi nagusia” Euskal Jaia izango dela, maiatzaren 18koa. “Dantzari ohiak batu nahi ditugu bertan”. Gauzak hala, harremanetan jartzeko deialuzatu diete taldeko kide ohiei, “nahiz eta informazio gehiago zabalduko dugun”.

Jakinarazi dutenez, urteurren dinamika oraindik ez dago guztiz itxita eta ez dute baztertzengauza gehiago antolatzea.

Ruben eta David Blyth anaiak saritu dituzte Getxo Expressen

Getxo Express lehiaketaren III. Edizioan saritu dituzte Ruben eta David Blyth anaiak. Publikoaren saria jaso dute *Mi caballo negro de plástico* filmagatik. “42 ordu izan genituen filma egiteko”, azaldu dute Arespalditzako anaiak. Beste bi baldintza ere bete behar izan zituzten: Getxoko leku batzuk eta xakeko zaldi beltza agertzea. Epea amaitu baino ordu erdi lehenago entregatu zuten lana.

Koldo Serra zinemagilea izan zen epaimahaiko kideetako bat. 25 lan aurkeztu ziren guztira norgehiagokara. Honakoa ez da arespalditzarrak lehiaketa horretan saritzen dituzten lehen aldia. Iazko edizioan lehen saria eskuratu zuten.

“Trap musikaren bizitza estiloa ez dut batere gogoko, Laudion ezin dituzu gangster plantak egin”

JULEN RUBIO PLAZA (Laudio, 1992)

Lyrikan izen artistikoarekin da ezagunagoa. Reggae musika abesten hasi zen duela zenbait urte. Orain, aldiz, estilo aldaketa nabaria izan du.



Testua
Txabi Alvarado Bañares

Estilo aldaketa nabarmena sumatu daiteke plazaratu dituzun azken abestietan. Zergatik biraketa hori?

Hainbat disko grabatzetik nentorren. Artista gisa ilusioa egiten dizu zure lana argitaratu eta esku artean izateak. Baina errealitate gordinaz konturatzen zara gero: fast-food musikaren garaian gaudela, azkar zabaldu, kontsumitu eta ahazten den musika.

Aldatu egin da baita ere nire musika ulertzeko era. Orain ez naiz reggae-dancehall artista kontsideratzen, estilo hori jorratzen jarraitzen dudana arren. Artista bat kontsideratzen naiz, orokorrean. Gustuko ditudan alor guztietara ireki nahi dut nire burua, digitaletara batez ere.

Ez zara musikara mugatuko, beraz.

Duela gutxi LK Visuals plazaratu genuen. Zigilu txiki horren bidez plazaratuko ditugu bideoak, bitartekaririk gabe. Nik neuk ekoitzi eta nahasten ditut nire abestietako instrumental gehienak.

Aldatu duzu musika mota. Zergatik?

Estilo aldaketa egin dut, nik entzutuen dudana musikan ere aldaketa eman direlako. Musika jamaikarra asko aldatu da.

Lehen doinu indartsuagoak baliatzen ziren. Hemen ohituagoak gaude mota horretako soinuek. Baina badaude beste erregistro batzuk, eta horiek probatzen ari naiz orain.

Trapak gorakada handia izan du azken urteetan. Nola bizi izan duzu zuk?

Hip-hoparen eta raparen mundutik nator ni, horregatik ez zait trapa asimilatzea kostatu. Nik gustuko dut trap musika, instrumentalak gehienbat. Baina traparen atzean dagoen bizitza estiloa ez dut batere gogoko. Laudion ezin dituzu gangster plantak egin.

Zein proiektu dituzu esku artean?

Baditut hainbat single. Trap, afrobeat, tropical house.. estiloak jorratzen ditut. Badut baita abesti nahiko “diskotekero” bat, dantzagarria baina mezuarekin. Kantahori izango da asimilatzeke zailena entzulearentzako, seguru asko. Oso freskoa eta beharrezkoa iruditzen zait. Hilean “bideo-single” bat plazaratzeko asmoa dut.

Kirola

ATLETISMOA

Urduñako Mendi Maratoiak ehunka korrikalari elkartu ditu Gorobealeko maldetan



Xabi Lete izan zen azkarrena, ibilbide osoa 4 ordu eta 17 minututan osatu zuen. Aiaraldea.eus

Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Eguraldia lagun, Urduñako Mendi Maratoiaren bigarren edizioa egin zuten iragan igandean. Gualdetxu MBTT taldeak ibilbide ikusgarriak prestatu zituen egin ziren hiru lasterketarako. 9:30ean abiatu ziren kirolariak Urduñako Foru Plazatik. Hiru lasterketa egon ziren: 42 kilometrotako maratokia, 29 kilometrotako maratoki erdia eta 12

kilometrotako froga herrikoa.

Maratoiko partaideek hirtan igo zuten Gorobel mendilerroa, Fraileburutik, Bedarbidetik eta "Paso malotik". Orotara 2.600 metrotako desnibel positiboari egin behar izan zioten aurre. Xabi Lete izan zen azkarrena, ibilbide osoa 4 ordu eta 17 minututan osatu baitzuen. Emakumezkoetan Amaia Larreategi izan zen garailea.

Maratoi-erdian lasterka aritu ziren kirolariek ere malda han-

diei egin zieten aurre. Fraileburu eta Bedarbidetik igo ziren Gorobealeko gailurretara. Victor Amatriain nagusitu zen podiumaren lehen postuan, bidea 2 ordu eta 42 minututan egin ostean. Andrea Garay izan zen lehen emakumea, 3 ordu eta 17 minutuko marka eginda.

12 kilometrotako frogan iritsi ziren podiumaren posturik gorenera Aiaraldeko korrikalariak: Iñaki Isasi eta Oihana Arratibel izan ziren irabazleak.

ATLETISMOA

Laudio Ibarra Krosaren aurtengo edizioak proba herrikoa ere izango du

Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Urtero bezala, azaroaren etorrerarekin Laudio Ibarra Krosa antolatu du Laudioko Atletismo Klubak. Aurtengoa XXXIV. edizioa izango da eta azaroaren 18an ospatuko da, Ellakuriko igerilekuko landetan.

Alberto Talledok, Laudioko Atletismo Klubeko presidentek, adierazi du berrikuntzekin datorrela jardura: "ibilbidea hobetu dugu, oraingo zirkuitua azkarragoa da".

Iaz bezala, aurten ere proba

herrikoa antolatu du Atletismo Klubak. Gauzak hala, federatu gabeko senior eta master kategorietako kirolariek 5.000 metrotako lasterketan parte hartu ahalko dute. Proba herrikoa goizeko 10:00etan abiatuko da, federatuen lasterketen aurretik.

Izena emateko epea

Izena emateko epea azaroaren 16ra arte egongo da zabalik, 5 euroko kostua izango du eta clubatletismolaudio@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidalita egin behar da.

TXIRRINDULARITZA

Emaiza esanguratsuak erdietsi dituzte Aiaraldeko txirrindulariek



Amurrioko T.E.

Arabako ziklokros txapelketa irabazi du Lukene Trujillanok, Kadete kategorian. Aner Morenok, aldiz, 23 urtetik beherakoen kategorien lortu du lehen postua. Iñaki Guaresti, bere aldetik, Euskal Selektzioarekin aritzeko hautatu dute. Datorren azaroaren 18an Bartzelonako ziklokrosean lehiatuko da.

K1

Asier Ispizuak irabazi du Euskal Herriko K1 Txapelketa profesionala

Testua

Aitor Aspuru Saez

Asier Ispizua audioarra gailendu zen bere kategorian larunbatean Euskal Herriko K1 Txapelketa profesionalean. Zarautzen izan zen norgehiagoka, Aritzbatalde frontoian. Printzipioz, egoera ez zen onena audiorrarentzat. Izan ere, Ion Sarasketa herriko borrokalariaren aurka lehia-

tu zen. Publikoaren babesa alde izan ez arren, Ispizuak ostikoa jo zion buruan azken asaltoan zarrautzarrari eta konortetik gabe utzi zuen. Handik gutxira altxatu zen audioarraren arerioa, arazorik gabe, eta Hajime Klubekoaren errespetua jaso zuen.

Bi garaipen garrantzitsu eskuratu ditu Ispizuak azken aldian, K1 Slam borrokaldian Cristian Gonzalez gaingitu baitzuen.



Ispizuak ostikoa eman zion bere aurkariari. A.I

PILOTA

Iker Yuste audioarra da Baque Euskadiko Kopan txapeldun

Testua

Aimar Gutierrez bidarte

Baque Euskadi Koparen I. edizioa txapeldun izendatu zuten Iker Yuste Herriaren Pilota Elkarteko kide gaztea iragan urriaren 27an.

Iurretako Olaburu frontoian

jokatu zen finala. Norgehiagokan Yuste eta Liher Kortazar bizkaitarra izan ziren aurrez aurre. Aurreko larunbatean Beñat Etxeita aise irabaztetik zetorren Laudioko jokalaria. Hasieratik erakutsi zuen nagusitasuna. 7-1 jarri zen aurretik markagailuan partidaren lehen zatian.



Kirola

“Xerpek
oso
hurbiltasun
keinu
ederrak
izan
dituzte
gurekiko”

“OXIGENOA EUSKARARI 6.000 METROTAN ERE” PROIEKTUKO KIDEAK DIRA **BESAIDE ASTOBIZA** (Orozko, 2000), **JON FONBELLIDA** (Laudio, 2000), **IKER ZUBIZARRETA** (Laudio, 2000) ETA **JULEN REKETA** (Laudio, 1967). HIMALAIAN IZAN DIRA HILABETEZ HAINBAT XERPA GAZTEREKIN BATERA, EUSKARA ETA XERPERAREN ARTEKO ZUBIAK ERAIKITZEN.



Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Zertan datza "Oxigenoa Euskarari 6.000 metrotan ere" proiektua?

Jon Fonbellida: Proiektuaren hasierako helburua Euskal Herriko 12 gazte Himalaiara eramatea zen, bertan 10 xerpa gazterekin elkarbizitzeko hilabete batez. Elkarbizitza horren ardatza hizkuntza izan da, euskara bezala hizkuntza gutxitua baita xerpera. Himalaiako egonaldian zehar gazteok elkarri norberaren hizkuntza irakasten egon gara.

Nondik jaso zenuten proiektuaren berri?

Besaide Astobiza: Felipe Uriarte mendi gidariak sortu zuen egitasmoa. Duela urtebete gutxi gora behera Lau-dioko Ikastolara eta Institutura etorri zen, proiektua aurkeztu eta balizko partaideak bilatzeko. Urtebete eman dugu Himalaiako egonaldia prestatzen, proiektua herriz herri ezagutzera ematen eta finantzazioa lortzen.

Zer ekimen egin dituzue finantzazioa lortzeko?

Iker Zubizarreta: Jendeak nahikotxo lagundu gaitu. Guztira 60.000 eurokoa zen bidaiaren aurrekontua, gazte bakoitzak 6.000 euro. Enpresa eta denda txikiek asko lagundu gaituzte. Laudion, esaterako, Mekatxabir enpresak asko babestu gaitu, baina komertzio txikiek ere egundoko ekarpena egin dute.

Finantzazioaren zatirik handiena kamisetak saltzetik lortu dugu. Hori jendea inplikatu denaren seinale da, proiektuaren kamisetak edonon ikusi daitezke. Beraiei esker heldu gara Himalaiara.

Nolakoa izan zen Euskal Herritik Nepalera bidaia? Urduri zeundeten?

I.Z: Ni espektatiba handirik gabe nindoan, beste inoiz gertatu zait nonbaitera ilusio handiekin bidaiatu eta gero

ez izatea nik uste nuen bezalakoa eta. Ez nuen hori Himalaian gertatzea nahi.

J.F: Ni ere ezjakintasun handiarekin nindoan, etxean nengoela ez nuen begiratu Interneten zer topatuko nuen bertan. Urduri nengoen, bai, nire lehendabiziko hegazkin bidaia luzea izan da. Katmandura iristerakoan munduaren beste puntan zaudela ohartzen zara, zeharo desberdina da, eta aldatu egiten da zure mundua ikusteko modua.

B.A: Nik banekien garapen bidean zegoen herrialdea zela. Handik ikastea zen nire helburu nagusia, bizitzeko bestelako moduak ezagutzera.

Nolakoa izan da zeharkaldia? Zer leku ezagutu dituzue?

Julen Reketa: Bidaia Luklan hasi genuen 2.800 metrotan. Denbora faltagatik 14 plazako hegazkin txiki batek eramanez gintuen Katmandutik Luklara. Jende asko ikusi genuen bertan, turista ugari, nabaria da Khumbu bailaran azken urteetan egon den garapen ekonomikoa. Namche Bazar hirira heldu ginen ibilian eta bertan lehenengo aklimatazio-saioa egin genuen Khunde Ri 4.200 metrotako mendian, xerpa gazteekin batera. Bertatik Dingboche, Lobuche, Chukung eta Gokyo herrietatik igaro gara, besteak beste. Bailaratik bailarara pasatzerako orduan 5.500 metrotako mendi-lepo potenteak zeharkatu ditugu beti.

6.000 metroko bi mendi igo ditu espedizioak zeharkaldian. Nolakoa izan da esperientzia?

J.F: Bakoitzarentzat, nahiz eta mendi berdina igo, ibilbidea desberdina da. Bakoitzak bere mendi propioa du eta bere mendia egiteko era. Ikerrek eta nik Imja Tse mendia igotzeko zortea izan genuen. Imja Tse 6.200 metroko mendi kabroi bat da, psikologikoki niri oso gogorra egin zitzaidan. Gaueko ordu batean abiatu ginen, gauez beste bero iturririk gabe, ziala da.

B.A: Igoeran puntu batera iritsi ginen non gutako batzuk buelta ematea erabaki genuen. Hotzagatik ezin nuen

aurrera jarraitu eta asko pentsatu ondoren kanpamentura jaistea erabaki nuen amorru handiz. Orain ez naiz damutzen erabakiaz baina momentuan gogorra egin zitzaidan. Gerora lortuko genuen beste 6.000 metrotako mendi batera igotzea.

I.Z: Ni ez naiz oso hozberrak, egia esan. Arropa ona geroan, 6.000 metrotara igotzeko aproposa. Niri lo faltak kaltetu ninduen gehien, nekea eta logura nabaritzen nuen, momentu zail batzuetan bereziki, eta aklimatazio falta geneukala ere sentitzen nuen. Baina tontorrera igotzea gauza ederra da, zaila da sentitzen den guztia azaltzea, baina erabat asebetzen zaitu.

Nolakoa izan da xerpa gazteekin harremana?

B.A: Lagun onak egin ditugunaren sentsazioa daukat. Kultura itxia da xerpena eta oso hurbiltasun keinu ederrak izan dituzte gurekiko. Nik urtebetetzea bertan ospatu nuen eta beraiek urtebetetzeak ospatzen ez dituzten arren nigana etorri eta zorionak esan zidan xerpa lagun batek belarrira. Detalle txiki baina oso sakonak bizi izan ditugu.

Zer egoeretan dago xerpa hizkuntza?

J.F: Erabilera aldetik oso egoera onean dago, gazteek asko erabiltzen dute. Daukan arazo handiena irakasteko zailtasuna da. Ahozko transmisio bidez zabaltzen da hizkuntza, gurasoek seme-alabei pasatuaz.

Zer jarraipen emango diozue proiektuari?

J.R: Gure lehenengo helburua dokumental txukun bat osatzea da. Irudi oso onak filmatu ditugu, bereziki gurekin zetoarren Mikel Fernandez kameralariari esker. Felipe Uriartek idatziko du gidoia, badago zer edo zer ona aurkezteko materiala. Dokumentala proiektua zabaltzeko xerpa gazteak Euskal Herrira ekartzeko finantzazio iturri izan daiteke ere. Nik uste badaudela aukerak xerpak gurera ekartzeko.

kirola



22 GAZTE

12 gazte euskaldun 10 xerpa gazterekin elkartu dira hilabetez zeharkaldia burutzeko.

BI SEI MILAKO

Zeharkaldian 6.000 metrotako bi mendi igo dituzte, Imja Tse eta Lobuje Ri.

XERPERA ETA EUSKARA

Hizkuntza gutxitua da xerpera, ahoz-ahoz tramititzen dena, hau ikasten aritu dira gazte euskaldunak.

EUSKARA-XERPERA HIZTEGIA

Bildutako informazioarekin euskara-xerpera hiztegi bat osatuko dute espedizioako partaideek.



KHUMBU HARANEAN BARRENA

Khumbu haranean barrena ibili dira eta Gokyo, Chukung eta Khujumung herrietatik igaro dira, besteak beste.



Kirola

“Sei segundogatik irabazi dugu Ipar Liga”

ESTITXU ORTIZ DURANTEZek

(Tertanga, 1985)

BIGARRENEZ IRABAZI DU RAIDEKO IPAR LIGA. 6 PROBETAN LEHIATU DA KIROLARIA.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Ipar Ligako txapela jantzi duzu. Esperotako emaitza?

Aurten bitalde geratu gara lehen postuan berdinduta: 3 garaipen eta 3 bigarren postu genituen bikote bakoitzak. Lehen aldia izan da hain parekatuta egon dena. Urriaren 27an bukatu zen Arratian txapelketa. Liga gogorra izan da, eta azken probetan nahiko ahul ibili gara: Hiru Handiak lasterketaren ondorioz hankak nekatuago nituen, baina raida ez da fisikoa bakarrik, estrategia eta burua ere bada. Denboraren kudeaketan dago gakoa. Lehia estua izan da: bigarren taldea 6 segundu beranduago iritsi zen azken proban. Sei segundogatik irabazi dugu liga.

Zenbat lasterketek osatu dute liga guztira?

Hego Euskal Herriko eta Kantabriako txapelketa da Ipar Liga. Normalean mendi edo orientazio taldeek antolatzen dituzte lasterketak. Aurten, Ipar Ligan 6 proba izan dira: lehenengoa Ibarrran izan zen (Tolosaldean), bigarrena Elgoibarren eta hurrengoak Lizarran, Sodupen, Urdaibain eta Arratian. Maiatzean hasi eta urrian bukatu zen, udan atsedena hartuta.

Bikoteka aritzen gara. Hiru kategoria daude: gizonezkoena, emakumezkoena eta mistoa. Ni Irungo beste neska batekin ibili naiz, nire orientazio taldekoka da.

Zure taldekidea Irungoa izanik, nola egiten duzue entrenatzeko?

Tertangako eta eskualdeko mendietara joaten naiz gehien bat, eta mendi ibilaldiak egiten ditut. Raidean aritzeko fisikoki ondo egon behar duzu, baina ez da behar aparteko prestakuntzarik. Lehiatzeko agian bai, baina frogatzeko eta gozatzeko ez.

Denboraldia bukatu da. Zein da zure balorazioa?

Lehiatzen egotea zen gure helburua, iaz irabaztea lortu baigenuen. Bi taldeen artean dago normalean borroka, oso neska gutxik parte hartzen baitute Ipar Ligan. Sailkapenean egoteko gutxienez 5 probetan egon behar da, eta bikote askok ez dute konpromiso hori hartzen.

Zazpi orduko lasterketak direnez, askok uste dute oso gogorrak direla eta prestaketa fisiko handia behar dela, baina ez da horrela. Bakoitzak bere indargune, fisiko eta denboraren arabera antolatzen du raid bakoitzeko ibilbidea.

Trekkinga, bizikleta, espeleologia, orientazioa... kirol konplexua da Raida?

Ez. Ez dituzu modalitate guztiak egin behar lasterketetan. Sekzioak norberak aukeratzen ditu. Gu, adibidez, oso trebeak gara trekkingean, baina bizikletaz ez; horregatik, saihesteko joera dugu. Denborarekin jokatzeara da raidaren funtsa.

Normalean beti daude trekking eta mendi bizikleta, baina gero inguruaren arabera bestelako kirolak sartzen dira: eskalada, espeleologia, kayak, azkartasun proba fisiko eta mentalak...

Fisikoak baino, gaitasun mentalak agintzen du, beraz?

Bai. Balizak bilatu behar dira. Seinale bakoitzak puntuazio ezberdina du. Guzti horiek probako mapan jarrita daude, kirol modalitatearen arabera. Baliza bakoitzak, zailtasunaren arabera, puntuazio ezberdina du. Seinaletan puntuazio gehien eskuratzeko duenak irabazten du. Baina batzuetan proba mentalak ere badira.

Zenbat urte daramatzazu Raidean?

Bigarren urtea da hau. Aaron Garmendiaren bidez hasi nintzen, Delikan orientazio proba bat antolatu baitzuen. Orientazioan hiru urte daramatzat, Salamankatik Zaragoza-Avilarraino joaten gara, Espainiatik mugitzen gara Cobi taldean.

Eskualdeko 10-15 lagun gaude talde horretan, Aiaraldean ez baitago orientazio talderik. Bizkaiko taldean gaude denak, hurbilen duguna delako. Ez da kirol ezaguna orientazioa, horregatik lasterketa proba herrikoiak antolatzen ditugu. Aurten, esaterako, Urduñan egingo dugu urtarrilaren amaieran, alde zaharrean barrena.

Aiaraldean nolako maila dago?

Mutiletan altua. Aaron Garmendia Euskal Raid taldearekin munduan barrena lehiatzen ari-tu da. Talde mistoetan ere bada maila, Cobi Amurriotaldean Nuria Gomez eta Mikel Monasterio ibiltzen dira, eta beti daude laugarren edo bosgarren postuan lehiatzen.

Gazteen artean, badago erreleborik?

Ez dut ikusten, baina nire ustez orientazioa eta raidak ezagutzen ez dituztelako da. Horregatik antolatuko dugu Urduñako proba herrikoia. Frogatzen duenak errepikatzen du!

Herriko plaza



Txese

Zorionak Txeseritoooooooo!
Animo asko hortik eta ea
noizbait itzultzen zaren ;)

Lagunak



Gurutze

Zorionak Gurutze! Besarkada
handi bat eta muxu asko zure
familiaren partez

Zure familia



Maddi

Zorionak Maddi! Segi horren
bihurri!

Urrutitik, izeko Amets

Idatzi zure mezua eta bidali
argazkia agurrak@aiaraldea.eus
eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko
dugu. Azaroaren 28an argitaratuko
da hamabostekariaren hurrengo
zenbakia.

Denborapasak

	Errelegia	DEITURA	Landare mota	Gipuzkoako udalerria
	Unibertsoaren zatia	Gandua	Pilota joko mota	
	Basa			
Ez azidoa, ez alkalinoa				
Ez miliarrak	Abagunak, egokierak	IZENA		Erregal beltza
Zuon, zur	Zaborra	Ipar EH-n, oso		
		Aldoholen bukaera	2	
		Erakitin mota	Herni armagin	
Baketisk				
Nire egin				
		Atal		Bokala
		Bokai mohea		Sarrera
Bizkiaz, sobera				
Zaldi	Bat eta bat		Bi ken bat	
	Jainko egipitoarra		Hou	
		Eskuzan harrak bost		
		Bokala		
Gorotza		Atmosfera eratzen duen gas nahastura		

❖ Txirrindulari urduñarra

ERRAZA

		8		5	4	6	7	2
4	6			9	8		5	
3	2	5	1	6	7			
	5			2	9	7		4
	9	3		7	5	8		6
	8		6	1	3			
	4		7		2		9	8
8		2	9		1	5		7
	7		5					

					3	4	7	6
	8		7	4		2		
	3		2				8	
4		2		6	9		5	
			5		7			
		5				3		2
			6	5		7		
8	5			7	2		4	
		7	8		4	6		

ZAILA

	8	3		6				
			4					5
2						9		
1	3				8		2	
		9	3	5				
				7				6
	7		4			2		
		8		2		3	4	
					5			8

	9		6		1	
7			1	3		
3			2			
5		6		8		
	1					
	7			6	5	
9		2	3		6	
			9	5	4	
	4	8				3

DENBORAPASEN SOLUZIOAK



Lan-eskaintzak

- ZONALDEKO LAN HARREMANEN MANAGERRA. Araba
- ADMINISTRARIA. Audio
- LOGOPEDA. Audio
- ZERBITZARIA. Audio
- SUKALDARIA. Audio
- ADMINISTRARIA. Audio
- ZERBITZARIA ETA SUKALDARIA. Audio
- KALITATE INGENIARIA. Amurrio
- OBRA ARDURADUNA. Audio
- LIZATZAILEA. Audio
- ELEKTRIKARIA. Audio

LAN-ESKAINZA GEHIAGO AIARALDEA.EUS ATARIAN

Zozketa

“ELE, LAUAXETA-LORCA”
IKUSKIZUNERAKO SARRERA
BIKOITZA



**Amurrio Antzokian
Azaroaren 24an
20:00etan.**

Aiaraldea hedabideak sarrera bikoitz bat zozketatuko du **www.aiaraldea.eus web** atarian.


Zozketa data: azaroaren 23an, 12:00etan

Aiaraldea txiki



Maripurtzil seko ikaratuta dago etxeko ganbaran, ez baitu irteera aurkitzen. Lagun iezaiozu lehenbailehen! Mamurik nahiz zomorrotan
Laukitik laukira egin behar du aurrera, eskuargiak seinalatzen duen tokitik hasita eta gora, behera, ezkerrera edo eskuinera

Emaitzak





rik ukitu gabe egin behar du bidea.
a, baina inoiz ez diagonalean.

Sudokua

Bete itzazu lauki zuriak, **KUIA** hitza osatzen duten hizkiekin (K, U, I eta A). Gogoan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



	I		
U			
			A
	U	K	

Itzala

Begiraiozu txokolatzeko tarta beldurgarri honi. Halloween egunerako aproposa, ezta? Zein da bere itzal zuzena?



Kontra

Mundutik Aiaraldeara

Eramus+ proiektuko irakasleak

PARTE HARTZAILEAK

PIOTR PAWEŁ SZCZEPKOWSKI, SYLWIA SZCZEPKOWSKA, ELENI DAMASKOU, CHRISAYGI PETALI, CHARALAMPOS PALLIS, OLGA MARIA CORREIA DE OLIVEIRA eta PAULA LUCINDA DE SOUSA ANTUNES CORREIA

JATORRIKO HERRIALDEAK
POLONIA, GREZIA ETA PORTUGAL

BIDAIAREN XEDEA
ERASMUS+ EGITASMOAN PARTE HARTZEA



POLONIA,
PORTUGAL
eta GREZIA



Laudio BHI institutuak garatu du "A Nod to our Heritage" proiektua, Erasmus+ egitasmoaren barruan. Europako beste hiru ikastetxerekin batera garatu dute egitasmoa: Janowiec Koscielny herriko (Polonia) Szkoła Podstawowa im. Jana Pawła II w Janowcu zentroa, Acharnes-eko (Grezia) 10 Gymnasio Acharnon School eskola eta Chamuscako (Portugal) AEC-Escola Básica e Secundaria. Hiru ikastetxe horietako irakasleak dira Laudion egonaldia egin dutenak.

“Hemen ez dago Europako beste ikastetxe batzuetan dagoen kultura aniztasuna”

Europako bost ikastetxetako kideak bildu zarete Laudion hainbat egunez. Zertan aritu zarete?

“Erasmus+” proiektuan parte hartzen dugu guztiok, “A Nod to our Heritage” egitasmoan. Lehen bilera izan da, planteatutakoekin zuzen proiektu osoangainean eztabaidatzeko.

Planteatutako helburua betetzea lortu duzue, beraz?

Bai. Oso ondo antolatua egon da dena, agenda oso betea izan dugu, gehiegi. Goizeko zortzietatik arratsaldeko zortzietara aritu gara egunero lanean, oso intentsua izan da. Baina modu horretan gai gehienak argitzea lortu dugu, guztiak ez bada. Oinarriak finkatu ditugu ikastetxeetan artean hurrengo bi urteetan elkar-lan egokia garatzeko.

Ikuspuntu pertsonaletik, zer nolakoa izan da egonaldia?

Tokiko kultura ezagutzeko parada izan dugu: gastronomia, historia, hizkuntza, arkitektura... Aukera izan dugu gauza asko ikusi, entzun, usaindu eta dastatzeko. Euskal Herria nahiko ondo ezagutzeko beta izan dugu. Txokoetako giroa bizi izan dugu, adibidez. Esperientzia bikaina izan da.

Badagobereziki harritu dizuen zerbait?

Hizkuntza eta eguraldia (barreak). Poloniatik gatozenoi, adibidez, oso dibertigarriak iruditu zaizkigu euskarazko hitz batzuk, polonierazko umeentzako olerki batzuen sonoritatea dutelako.

Tokiko azoka batean egonginen, eta produktuen izenak ikustera koan konturatu ginen badaudela hizkuntzen arteko antzekotasun batzuk. Txokoen funtzionamen-

duak ere harritu gaitu. Gutako batek badu halako bat irekitzeko asmoa Grezian (barreak). Euskal dantzek eta gatz tokien funtzionamenduak ere harritu gaituzte.

Hezkuntzari dagokionez, ezberdintasun asko ikusi dituzue hemengo eta zuen herrialdeetako sistemen artean?

Laudio BHI oso ikastetxe handia da, langile eta ikasle asko daude bertan, atsedendia askoz zaratatsuagoak dira!

Badaude antzekotasun eta ezberdintasun asko. Askok harritu gaitu irakasleen-gelen funtzionamenduak. Irakasle bat falta bada beste batek hartzen du bere lekua, gurean ez da halakorik gertatzen. Horrez gain, harritu gaitu klaseetan telefono mugikorrak ez erabiltzea. Gurean gobernua kontrakoa sustatzen ari da: irakasle zein ikasleek teknologiak ahal bezain beste

erabiltzea klaseetan. Ikasleen mugikorra eraman behar dute klaseera.

Hemen ere ez dago beste herrialdeetan dagoen kultura aniztasuna. Grezian, adibidez, kultura eta jatorri ezberdinetako ikasle asko daude ikastetxeetan. Horregatik, proiektu honetan jatorri ezberdinetako ikasleak inplikatzeko saiatuko gara.

Egonaldi hau proiektuko lehen izan da. Zeintzuk izango dira hurrengo pausoak?

Lanean jarraituko dugu, bakoitzak bere herrialdean. Egonaldiak balio izan digu proiektuari nola heldu jakiteko. Horregatik, lanean hasteko txanda da orain. Ikastetxe bakoitzak bere egitasmoa garatu du, baina beste zentroekin elkarlanean dagoela jakinda. Proiektuak ahalbidetuko digu, adibidez, euskal kulturaren berri izateko, hemengo ikasleek eginiko edukiekin.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behe. Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKERTZETAKO BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Xabier Ugalde Gullias, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martinez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguilez, Unai Vicente Basterra, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernandez de Pinedo, Endika Arribas Gullias eta Eunate Molinuevo Olabarria

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

